

# ANDOLIN EGUZKITZA, EUSKALTZAIN OSOA: EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

*Santurtzi, 2002-II-23*



JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE  
*Euskaltzainburuak*



JAVIER CRUZ EXPÓSITO  
*Santurtziko alkateak*



## INGRESO EN LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA DE D. ANDOLIN EGUZKITZA

*Santurtzi, 23-II-02*

*Javier Cruz Expósito,  
Alcalde de Santurtzi*

Amigas, amigos:

Hoy me siento satisfecho, como Alcalde de Santurtzi, de poder participar en este acto entrañable por el que un vecino de este municipio pasa a ser académico de número de Euskaltzaindia.

Y digo que supone una satisfacción, en primer lugar, porque con este nombramiento se reconoce públicamente no sólo el esfuerzo y la dedicación de Andolin en la promoción del euskera, sino que se valora su contribución al fomento y desarrollo de dicho idioma, y su aportación al cumplimiento de los fines de Euskaltzaindia, tanto por su capacidad de trabajo como por su experiencia y conocimientos. Esta satisfacción se convierte en orgullo al ser Andolin el primer santurtziarra, e incluso la primera persona de la Margen Izquierda que alcanza este reconocimiento.

Pero, en segundo lugar, supone para mí, como socialista, un privilegio poder estar aquí expresando mi compromiso de seguir rompiendo las barreras y recelos que durante tanto tiempo han distanciado determinadas apuestas ideológicas del fomento y protección de un bien cultural de valor tan extraordinario como es el euskera.

Y es que un idioma no es un mero elenco de términos o expresiones acogidas a unas normas lingüísticas o la aplicación bien intencionada de un trasiego de palabras mejor o peor expresadas en una lengua, sino que es la aceptación como propio dentro de la colectividad, de una manera de apreciar lo humano. Es reconocer la entidad social y cultural de un pueblo, cuyo origen se sitúa en el orto de los tiempos.

El euskera es una realidad cultural viva, que evoluciona, que enriquece a otras lenguas vecinas y que se enriquece a su vez con las aportaciones de otros idiomas; que no pervive en la añoranza del pasado, sino que contempla el futuro con una actitud que habla de esfuerzo, de anhelo, de sueño. Aspira a ser

un instrumento normalizado en esta sociedad nuestra, rica y plural en su peculiaridad. Un instrumento que huye de toda demagogia, de los corsés ideológicos, de las aspiraciones totémicas que provocan su asfixia. Los pueblos miden sus relaciones con la capacidad de comunicarse, tanto entre propios como con ajenos. Tolerar las tendencias, respetar las culturas, es mejorar nuestra sociedad, nuestro futuro y la herencia de nuestros hijos e hijas.

Por ello el euskera es y debe ser un idioma de todos, para todos; un idioma moderno y ágil; un idioma con el que poder hablar al mundo de solidaridad, de justicia y de paz: eso es vivir en euskera.

## XALOTASUNAREN LAUDORIOA

### Sarrera-hitzaldia

*Santurtzi, 2002-II-23*

*Andolin Eguzkitza*

#### 0. Sarrera

Egunon. Egunon Santurtziko jende ona; egunon senideok, lagunok eta adiskideok, Santurtzi bertokook eta urrunagotik heldutakook; egunon agintari jaun-andreok; egunon Santurtziko Alkate jauna; egunon euskaltzain jaun-andreok; Euskaltzainburu jauna, egunon Zuri ere.

Seguru asko ezin igar diezaikezue zer-nolako ohorea den niretzat, hemen neure herrian, Santurtzi eder honetan, duela hainbat mende erdara nagusi izan den Bizkaiko itsasaldeko herrian Euskaltzaindirako sarrera-hitzaldi hau egitea, eta seguru asko ez diokezue igartzen ere zelako zirrarez ari naizen, hain segur gurasoak bertan entzule ez egoteagatik sentitzen dudakadentasuna bezain handia; haiek baina, Aita Villasantek apur bat beranduago bezala, duela bi urte baino luzeago egin ziguten agur. Malenkonia hori, haatik, apaldu egiten zait haien ondorengoak gomutatzean eta ikustean, neure anaia-arrebok, geure lobok, gazteenak baino ez aipatzearren, gure familiako neskabila ederrak, Ainhoa, Irati, Garazi, Arrate eta Nora, denak euskaldunak direnak eta orobat euskalduna ere den Jon, gure ondorengoetan oraingoz mutiko bakarra. Eta kadentasun hori era berean zait apaltzen, hainbeste lagun, hainbeste adiskide, hainbeste herritar hemen inguruan batuta sumatzean, Santurtziko udal-txean, euskaldunon hizkuntza ohoratzea helburu daukan ekitaldi honetan. Guztioi halandaze mila esker, edo eta aita Luis Villasantek erabiltzen ohi zuen Jaun Done Frantsizko Asiskoaren moldeaz esateko, **bake eta on guztioi**.

Eta hasi –zuen baimenarekin– Aita Villasantek berak duela 51 urte Euskaltzain osoaren kargua hartzeko hitzaldian lapurtar klasikoz esan zituen berba batzuekin hasi egingen naiz, hain baitira egia eta menderdia igaro arren egun egunekoak:

«Ongi dakusat eta orok dakite, Euskaltzaindia dugula egun, gure herri maitarearen ondasunik balioetsuena jagon eta begiratzeko bizi den baltzu, lagunarte eta elkhargoa. Elkhargo hau, beraz, gure herriarentzat symbola bat bezala bihurtu da,

euskararen gaztelu eta dorrea bilhakatu da. Bertze aldetik, berriz, ni berhunen gal-tzarrerat ekharria izaita, neholatan ere irabazi ez merezi ez-tutanaz geroztik, ez-tut omen, sari edo deduzko izendatze bat bezala hartu nahi.

Aitzitik, Euskalherri osoaren aitzinean egun bizkarreratu dudan zor handi eta responsabilitate larriaren berri ongi dakit. Lanerako deithua izan naizela badaku-sat. Zuen dei huni, bada, baieztoko emaiten saiaturen naiz. Vokazino bati erantzut-tera behartuak gagozen bezala erantzuteko ahalak eginen ditut. Egungo zor hauk atheratzeko kezka ta ardura izanen dut, nere etorkizuneko neke-lan-izerdiak eus-karari eskainiaz, gure mintzo maite hunen laborantzari nere bizitza lotuaz. Ema-nen ahal deraut goiko Jaunak hartarako kemen eta adore!»

## 1. Santurtziko herriari ohore

**1.1.** Lehenengo eta behin beraz, utz ie-zadazue gaur batu gaituen herri hau goraipatzen, ni neu eta hemen gauden gehienok sortzen ikusi gaituen herria, ni neu eta berton gauden gehienok egin gaituen herria, atzo goizerarte arran-tzale-herria izan dena Bizkaiko itsasaldean, Euskal Herriko mendebalde-men-debaldean. Euskaldun askorentzat segurutik erdal herriaren muga egiten duen tokia, «terra incognita» hasten den aurkientza, eta horregatio Enkarterrietako beste herriak bezala aspaldi erdaldundua egon arren, sekulan ere bere bizkai-tartasunari, alegia, bere herritasunari uko egin ez dion herrixka; izan ere ha-lakoa izan baitzen XIX. gizaldiaren amaiera eta XX.aren hasierararte behin-tzat, orduantxe biztanleriaren ugaltzeaz batera hasi baitzen Santurtzi handitzen, eta orduantxe ere banatu baitzen udalerri bitan, gaur egungo Ortuella eta gaur egungo Santurtzi.

Ez dut hemen orain Santurtziren historia eginen, ezpada Somorrostro Ha-raneko Hiru Kontseiluen izeneko udalerrian daukala jatorria esateko, hots, gaurko Trapagaranek, Sestaok eta Santurtzik berak behinola osaturiko udale-rrian dauzkala bere sustraiak. Ondoan, jakina, gaur egungo Abanto, Muskiz eta Zierbena deritzen udalerriek betetzen duten lurraldean, Somorrostro Ha-ra-neko Lau Kontseiluak zeuden (Zierbenako Durruma, Muskizko Jaun Done Ju-lian, Abantoko Andre Dona Juliana eta Abantoko Jaun Done Petri euskal ize-nez bataia nitzakeen kontseiluak, historia eta zantzuak, datuak eta nahikundeak nahastekatuz, hau da, geure historia, herri guztiek egin ohi duten moduan, be-rrasmatuz). XIX. mendearen erditsuan, lehenik, Hiru Kontseiluak bananduta, aipaturiko hiru udalerriak sortuko dira, eta beranduago, 1901ean, Santurtzi ize-na zeukan herri bakarretik beste bi agertuko dira, lehenengoz Santurtzi-Or-tuella alde batetik eta Santurtzi bera bestetik (Santurce Antiguo zeritzon honi erdaraz), eta geroago, azkenez, gaurko Ortuella eta Santurtzi, azken hau dela-rik gaur bildu gaituen herria, 1075ean lehen berria dugunetik Done Jurgi [*Sanctis Georgis* latinez idatzita dagoen dokumentuan] izeneko eta hementxe, udaletxearen ondoan, daukagun elizaren inguruan sortu zena, euskaldunon itsasoa amaitzen den azken bazterrean ia, eta Serantes mendiaren magalean,

kokagune benetan ederrean. Berba laburrez esateko, Euskal Herriko sartaldeko muturrean dagoen herri polita, gu umeak ginenean behintzat, hala gomutatzen baitut nik bederen.

**1.2.** Eta Santurtzi aipatu beharrean nago, herri honek eman digulako bitzita, herri honetan hazi eta hezi garelako, herri honetan sortu delako gaurko ekitaldi hau bururatzeko beharrezkoa izan den indar eta kementa, herri honek behar duelako ohorea, eta ez nik.

Oraindik ere, Europako Mendebaldeko porturik handienetarikoa bat bertan egon arren, «bonita aldea» deritzogu geure herriari, eta hainbeste urtez beraren hazkundera anabasa hutsean murgildu arren, hirigintzan hainbeste urtez oihanaren legeak agindu arren, eta herria itsustu eta desitxuratu –gure belaldikook gizon eta emakume bihurtu ginen urteetan gutxi gora behera– ostera ere hasi da argitzen, ostera ere lehenago zeukan edertasunetik apur bat irabazten, eta laster baten beharbada atzera berriz agertuko zaigu, umetan genekusan legez, mendiz eta itsasoz osaturiko herri gisa, ondoan hainbeste etekin-sorburu erraldoi eduki arren. Egia da, bestaldek, baserritarrak beti egon direna herrian, Kabiezes inguru horretan batez ere, baina zalantzarik gabe, itsasoa izan da santurtziarrok egin gaituena, gure herriari daukan indarra eman diona.

**1.3.** Santurtzi, bestalde, inguruko eta urruneko jendez bete ahala handitu zen. Gure gurasoak, adibidez, Lamiakotik eta Portugaletetik heldu ziren, Leioko auzunea den lehenengotik aita eta bigarrenetik ama. Baina ez dirateke gutxi hemen, entzule daudenen artean, askozaz urrunagoko arbasoak daukatenak. Laster orduan, hemen gaudenon hainbesteren gurasoak legez, garaietako estuasunak eta beharrak gaindituta, gureak ere herrian sartu eta herriaren ekimenetan dzanga eginda, saiatu egin ziren guri hezkuntza duin bat ematen: gizaki moduan lehenago, eta euskaldun gisa gero. Halandaze, eta zuzentasunez berba egitearren, ez gara bene-benetan beraien ahaleginen ondorio hutsa baino.

Gerrosteko garaiaz ari gara. Gure etxean, Aberri Egunean, «Eusko Gudariak», «Goazen mendirik mendi» edo «Gora el Irintzi Intrépido» kantatzeko leihoak ixten ziren garaia; gure aita zenak ikurriña zelakoa zen eta zer esan gura zuen kontatzen zigunean, kalean horrelakoez berba ez egiteko agintzen zigun denbora iluna, eta gure bataio-izenez barik gure ezizen ofizialez agertu behar genuen denboraldi latza; ni neu jadanik hamabi bat urte edo neuzkala, herriko ikastola andereño bakarraren inguruan hainbat familiaren sukaldeetan hasten zen sasoi, eta Mamariga eta Kabiezesko elizetan dantzatalde eta mendizaletaldeak sortzen ziren tenorea. Labor esanda, aurrera egiteko eta esperantzarik ezari ihes egiteko etengabeko dinamikan murgiltzen zen gizarte txiki bateko kideak gara, orain garena eta lortu dugun apurra li-tekeenatzat egin zuena.



Ekzerretatik eskubitara: Xabier Kintana, Euskaltzaindiko idazkaria; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Javier Cruz Exposito, Santurtzikoko alkatea eta Miren Azkarate, euskaltzain osoa eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua.

Zeren nola azal hemen gaur udaletxe honetan gertatzen ari dena gure aurrekoek hainbeste ahaleginez eta izerdiz, hainbeste oztopo eta eragozpen gaindituta erein zutenaren ondorioz ez bada? Zelan esplikatu gaur egun Santurtzin bizi diren sei-zortzi mila euskaldunak, haiek, hemen gauden guztion aurrekoek, egin zutena kontutan hartu gabe, haien kemenik gabe, haien indarrak eta eskuzabaltasunik gabe, haien eragozpen guztiak baino handiagoa zen esperantzarik gabe? Balboa, Cabanellas, Eguzkitza, Garrastatxu, Ituarte, Izagirre, Loidi, Matanzas, de Miguel, Olalde, Onaindia, Rivière, Urteaga, Uribechebarria, eta beste hamaika andre-gizonen afanik eta ardurarik gabe? Ez dago azalpenik, eta horregatik, hemendik, neure belaunaldiko eta ondoko belaunaldietako euskaldunon izenean justiziazkoa baino ez da eskerrak adieraz ditzadan, eta eskerrak eman justiziarren zentzua eman zigutelako, jendeen eta populuaren arteko berdintasuna eta errespetua zer den agerian utzi zigutelako, eta Abraz bestaldeko Akabuko Puntak Santurtzikoko arrantzaleentzat bezala, argi eta garbi erakutsi zigutelako zein zen euskaldunon herriaren alde segitu behar genuen bidea.

Eta eskerrak emateko ordu honetan zelan ahantz Juan Angel Etxebarria, gerrosteko lehenengo santurtziar euskaldun eta euskaltzalea, idazlea eta irakaslea, euskararen suak eraginda sufrimenduz hornituriko bizitza eskaini ziona Euskal Herriari? Izan bedi gomuta hau harenganako justizia egiten hasteko lehen pausoa!

**1.4.** Eta zer esan Santurtzin bertan aritzen diren euskaldun gazteez, lehenago aipatu ditudan sei edo zortzi mila euskaldun horiez? Eta Santurtzin bezala inguruko herritakoez, goragoko Somorrostroko Hiru eta Lau Kontseiluetakoez bezala, Ibar Ezkerreko beste herritakoez, Barakaldo eta Portugaletekoez, edota Enkarterrietako beste herri guztietakoez ere bai? Zeren oraindik orain, betebeharrak eta lortzekoak arraz handiak izateagatik ere, lan egiten segitzen baitute, eta antza amore emateko prest ere ez baitaude. Egindako lanaren frogagarri, hara hor Santurtziko euskaldunak, nire gaztaroan %0,1 izatetik %12-14 izatera igaro direnak orain, eta laster gero eta euskaldunago den gazteriarekin laurdenera ere hel daitezkeenak. Halaz ere, gaur Euskaltzaindiak ekitaldi honen kariaz Santurtziko herriari egiten dion ohorea, Euskaltzainburu jaunaren baimenez, hemendik Bizkaiko mendebalde osoari, Euskal Herriko sortaldeko muturra biltzen duen eskualde osoari zabaltzea gurako nuke, ez baita debalde hau lehenengo aldia Euskal Herriko eskualde hau ordezkatzeko denik euskaltzain osoen bilkuran, gaurkoan Santurtzikoa naizenonen bidez gertatzen bada ere, Enkarterrietako edozein herritako euskaldunen baten bidez gerta zitezkeen gauza baita.

**1.5.** Eta aurrera segitu baino lehen, aipamen oso neure batzuk egitearren bide nagusitik apur batez baino ez bada ere urruntzen banaiz, barkamena eskatu gura nizueke, zeren honainoko tartea egin baldin badut, hau da, Santurtzi neure herria eta Bizkaiko Mendebalde osoa ordezkatzeko baldin baditut Euskaltzaindian, argi eta garbi utzi beharrean bainago hori guztia hainbeste pertsona prestu eta onei esker gertatu dela bakar-bakarrik, haiek gabe, haien laguntza eta federik gabe honaino heldu ez bainintzatekeen, haien eskuzabalatasun eskerga eta borondate onik gabe ezinezkoa izan zitzaidekeelako hementxe bertan, neure herrian, gaur hitzaldi hau egiten egon, eta era berean ezinezko izan zitzaidekeelako euskal mundu zoragarri hau aurkitzean eta ezagutzean sentitu nuen plazera sentitzea.

Eta lehenengo eta behin nire euskarazko irakasleak ohoratu gura nituzke, seguru bainago nik behintzat Euskal Herrian inoiz egon den onenetariko bat eduki dudala, Munitibarreko semea den Kepa Mallea, lasai asko esan dezake dalako, 1968an antolatutako ziren udako bigarren ikastaro haietan hasi eta behingoan, oraino ere hamabost urte baino ez neuzkanean, lehenengo segundotik euskararekiko maitasuna kutsatu ez ezik injektatu ere egin zidala. Eta harekin batera, eta ikastaro haietan zebiltzaten guztien izenean ez nuke Juan Jose Zearreta aipatu gabe utzi gura, ez baitira gutxi, ikasle gisa lehenago eta lankide moduan geroago eskaini dizkidanak.

Baina ikastaro horiek hasiera izan ziren bakarrik. Segida, eta ez edozelakoa, familia euskaldun bik eskaini zidatelako, 1969ko uda horretan berean Amortoko Telleria baserriko Juan Kortabitarte eta beraren familiak (Milagros emazteak eta seme-alaba guztiek), eta Ondarroako Ixidor Etcheberriarekin batera Olga Iturraspe emazte eta hitzun onak hurrengo urteko udan. Eta sinets

nazazue, beldur gabe esan dezaket arrazoi askorengatik zori onekoa izan nintzela. Esate baterako, Telleriako etxeko jaun abertzale eta kultuak bazkaldu edo afaldu aurretik, Argia astekariaren harpidea zelarik, hura nirekin batera irakurtzen jartzen zelako sarritan, eta Ixidor Etxeberriaren etxeko liburutegi euskalduna erabiltzeko bezala, hala beraren emazte Olgarekin berbaz luze egoteko aukera paregabea sarri askotan eduki nuelako.

Amaitzeko ez nituzke ezelan ere euskal gramatikaren kontinentean alde batetik, eta idazkuntza eta literaturaren munduan bestetik sartzen lagundu zidatenak ahaztu gura. Hurrenez hurren, aita Justomari Mokoroa, Xabier Kintana eta aita Imanol Berriatua aipatu behar ditut. Lehenengoa, eskoletan frantsesa irakasten zigun bezainbesteko zehaztasunaz, euskal aditzaren sekretuak argitu baitzizkidan eskolak amaitu osteko 1969-1970 ikasturteko arratsalde googarrietan, eta arratsalde horietako baten ezagutu nuen Xabier Kintanak, aldiz, geroago aita Imanol Berriatuak ere eginen zuen bezala, idazten hasteko lehenengo urratsak egiten lagundu zidalako, ohikoa duen eskuzabaltasunaz, bere adiskidantza eskaintzeaz gain. Azken aipamena, edozelan ere, Gabriel Aresti zenarena izatea nahiko nuke, zeren Xabier Kintanaren bidez ezagutu nuen Bilboko poeta handiari zerion kemenak, eta bizitza osoa iparburu izan zituen justizia eta euskarara gazte jendea erakartzeko zeukan oldarrak zerikusirik asko baitaukate segurutik neure sarrerarekin euskal literaturaren mundu zoragarrian. Eta irakasletzat jotzea gustatuko litzaidakeen Gabriel ez bazen euskaltzain osoa izatera heldu, garai beretsuko beste idazle handia ere heldu ez den bezala, Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, beharbada ulertuko dukezue orain sentitzen dudan ñimiñotasun-sentimendua.

Amaitu benetan, haatik, beste izen batzuk gomutatuz amaitu gura dut, haiek ere lagundu besterik ez bainaute egin, eta gazte-gazterik ezagutu nindutenetik egonarri ikaragarriaz aurrera egiteko indarra eman, Euskaltzaindiaren egoitzaren langileak dira horiek: Rosa Artza zena, Lutxi Alberdi, Begoña Amondarain, Resu Orbe, Nerea Altuna, Cristina Arana, Josune Olabarria, eta orobat Bilboko bulegoetan ere lan egiten duten sei gizonezkoak, Jose Luis Lizundia, Juanjo Zearreta, Ricardo Badiola, Emilio Porras, Pello Telleria eta Prudentzio Garzia. Guztioi bihotzetik mila esker.

## 2. Aita Villasanteri gorazarre

**2.0.** Ez dakit asmatzen ahal dukezuen, zer-nolako sentieraz hartu dudan, Euskaltzaindian hainbeste urtez bete zuen jesarlekuan, aita Luis Villasante Kortabitarte fraide frantziskotarra ordezkatzeko kargua, 1951ko otsailaren 23an izendatu baitzuten euskaltzain urgazle eta urte bereko irailaren 25ean, os-tera, euskaltzain oso. Pozaz zalantzarik gabe, nekez jasoko baitut bizitzan hau bezalako beste saririk, eta era berean beldurrez, bera izanen baita, bat ere zalantzarik gabe, nire neurgailua eta erantzukizun-eskalea betiko. Inolaz ere, ez

erronka erraza. Eta haatik, esan dudan legez, bene-benetan sinetsita nago zorronekoa ere banaizena, izan dadin bera ezagutu nuen apurrean erakutsi zidan xalotasun eta lañotasunagatik, izan dadin beraren lagunek, lankideek eta idatziz zituenek orok agerian uzten duten handitasun urguriagatik, hain baita zabala beraren obra, hain baita beraren idazkera labur, zorrotz eta zehatz, hain baitzen handia erakusten zuen apaltasuna, eta hain baitzuen trebetasunez zuzendu Euskaltzaindia euskarak lemazain seguru eta kementsua behar zuen garai latz eta arriskutsuetan. Horra hor, labur esanda, gorazarre honen zioa.

**2.1.** Luis Villasante Kortabitarte, honezkero denok ondo badakikezuenez, garai hartan oraindik Ajangizkoa zen, baina gaur egun Gernikakoa den, Errenteria auzoan sortu zen 1920ko martxoaren 22an. Ama aulestiarra zeukan, aita, aldiz, Balmasedaren ondoko Gaztelako zatia den Mena haraneko Cadagua de Mena-koa. Oso gazte –sei urterekin– ama hiltzen zaio eta laster, hamaika urte bete berri, 1931ko agorrilaren 18an, auzoko, baina Gernikako, eta kaleko laguna zeukan Jose Antonio Gandarias-ekin batera, Arantzazura heltzen da hil arteko beraren familia izanen den frantziskotarren ordenan sartzeko. Eta Arantzazu hartan ere, Aloña mendiaren altzoan kokaturik dagoen anaiarte hori izanen baita hil arteko beraren 57 urteko etxea. Tartean, Foruko komentuan urte bi ematen ditu Arantzazun hasitako humanitate-ikasketak amaitzeko; gerratean, ostera, urtebete aitarekin Gernikan, eta bonbardaketaren ondoren beste urtebete Zarauzko komentuan abitua hartzearren; 1938tik 1939ra Burgosen dabil soldadu; Tafallaren ondoko Erriberriko komentuan hurrengo hiru urteak sartzen ditu filosofia eta teologia ikasteko, eta 1942tik aurrera Arantzazura itzultzen da berriz ere. 1944ko irailean, teologian sakontzearren, Comillas-era abiatzen da. Hurrengo hiru ikasturteak, (1944-47), bertan ematen ditu eta bere doktorego-tesia prestatzen María Ángeles Sorazuri buruz. Bitartean, 1945eko oporretan, abuztuaren 15ean, ordenatu egiten da. 1947tik aurrera hil arteko bere etxera izanen den Arantzazuko santutegira itzultzen da teologia– eta euskara-irakasle gisa aritzeko. Hil, 2000ko abenduaren 2an eginen du, munduan barrera laurogei urte lantsu eta emankor sartu eta gero. Bitartean ia 800 sarrera dauzkan bibliografia utzi digu, horietatik beste egile batzuen liburuaren argitalpenak eta itzulpenak zenbatu gabe, 25 edo berak idatzitako liburuak direla.

**2.2.** Luis Villasante Kortabitarteren idazlanak begiratzan hasi, beraren berri emateko ahaleginetan sartu, eta hasiera-hasieratik agertzen zaizkio norberari egin zuen obra erraldoiaren norabideak, bi izan baitziren funtsean: euskara eta euskararen ingurukoak alde batetik, eta teologia bestetik. Lehen alderdian, gure artean ezagunena, amaigabe ematen du idatziz zuenaren kopurua, askotxo erdaraz, hala nola ikasle-garaian euskal literaturaren historiaren berri zehatza ematen zigun liburu erraldoi hura, ezer ez genekienoi euskaraz zeredozer baino gehiago idatzita bazegoela agerian utzi ziguna; edo Elizalde saileko liburuak, euskara batuaren berri zehatza eman zigutena, eta gramatikazko irakasgai ez gutxi, hizkuntza batuaren aldeko burruka gori gorian zegoenean eta euskararen

etorkizuneko esperantzak hain modu zail eta latzean finkatzen ari zirenean. Euskaraz, baina beste norabidean, gure artekoentzat hain ezaguna ez den alor horretan, Ángeles Sorazu mistikoaz egindako idazlanak alde batera utzita, gutxi izan ez zirenak, Luis Villasantek ondu zituen lerroen kopurua kilometroka neur liteke, zeren Arantzazu izeneko aldizkarian idatzitakoa arras baita neurgaitza, eta oinarrizko teologiari buruz, alegia, teologia fundamentalari buruz idatzi zituen lau liburuek («Jainkoa», «Jesukristo», «Eliza» eta «Kristau Fedea») eurek bakarrik 1386 orrialde betetzen baitituzte. Euskararen gaineko liburuetan, edo zelan ere, ezin ahanzt ditzakegu Axularri eta euskararen auziari eskainitako saio ederrak. José Luis Zurutuza fraide frantziskotarrak eta aita Villasanteren lagun minak honela dio bere «Villasante Arantzazun» izeneko saioan:

«bere ekoizpen idatzia oparoa da euskaraz nahiz gaztelaniaz. Ez zitzaion kostatzen idaztea, nik uste gozatu egiten zuela: errekaetara zela artean kantari doan bezala, halaxe ateratzen zitzaizkion esaldiak, berezkoatasun osoz, aberats esanmoldeetan eta argiz beteak, pentsaeran bihurgunerik gabe, oztopoak berak ere –urak harriak bezala– borobilduz eta leunduz...».

Aipaturiko ildo bi horiek kontutan hartuta, bizitzaren azkenengo urteotan idatzitako saio bi aipatuko ditut bata eta bestearen erakusgarri: alde batetik Erein argitaletxearen «saiopaperak» izeneko bilduman, 1990an atera zuen «Ángeles Sorazu. Bizia eta mezua»; eta bestetik Arantzazuko argitaletxean bertan, eta bestea baino urte bi lehenago argitara emandako «Euskararen auziaz» baitaiatu zuen saio interesgarria, Luis Eleizalde sailari amaiera eman ziona.

Eta oroz lehen, batean zein bestean, idazkera da aipatu beharrekoa, hizkuntza erabiltzeko moldea, bere burua adierazteko zerabilen prosa, zeren Luis Villasante idazlea agerian uzten duena, eta XX. mendearen idazleen artean orobat zorrotz eta bipilki markatzen duena, idaztankera hori baita. Idazkera hori delako, hartan ere, hain gai desberdinak erabiltzeagatik, halako alor urrunak jorratzeagatik, saio biak nortasun beraren ekoizpen direla agerian uzten duena, hain segur sorkuntzazko literaturarik inoiz idatzi ez zuen Luis Villasante fraidea alderdi horretan izan delako sortzaileen, alderdi horretatik egin diolako euskarari ekarpenik gehien, eta berak hainbeste miresten zuen Axularrak nahi zuen bezala, horrexetan bihurtu duelako euskara bitore eta trebe.

Beraren idazkera hori nolakoa den ikusteko baina, hutsunez eta apurturaz beteriko gure literatura-tradizioan Arantzazuko fraidearen idazmoldea kokatzeko gauza izanen bagara, prosari buruz pentsatzen zuena, literatur-hizkuntza baten garapenean prosak daukan funtzioari buruz zeuzkan ideiak ulertu behar ditugu aldeztu aurretik. Honela zioen berak euskarari buruzko saioan (149-51 ork.):

«Lau euskalki literario izan ditu euskarak: lapurdiera, zuberera, gipuzkera eta bizkaiera. Horrek esan nahi du lau horietan izan dela idazle-mordoxka, eta horiei esker bakoitzean sortu eta egituratu dela idazmolde edo prosa egiteko tresna.

Lau tradizio orduan? Bai, nahi baduzu. Baina kontuan har dezagun hau: Iparralde berrehun urtez aitzindu zitzaiola Hegoaldeari, eta hori ere ez da ondorio

gabe, zeren eta hizkera idatzia moldatzeko eta egokitzeo denbora behar baita. Iparralde XVI. mendean hasten da hizkera lantzen; Hegoalde XVIII.ean, Gipuzkoan Larramendi eta honen ingurukoak izan ziren bidea urratu zutenak (Mendiburu, Kardaber az, Ubillos etab.) Bizkaian Mogel, Añibarro, etab.

Adibidez, Lavieuxvilleren dotrina (lapurterra) Mogelek bizkaierari egokitu zuen, baina bata eta bestea elkarrekin konparatuz, aurki jabetzen zara gauza batez: lapurtarrak darabilen tresna ongi trebatua eta egina dagoela; besteak, berriz, haztamuka, saio edo esperimendu egiten dabilenaren hizkera dirudi. Eta beharko ibili bide berriak urratzen zebilenez gero!

Dena den, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean ere, bakoitza bere euskalkiari jarraituagatik, gainerakoan —eta euskalkiak eskatzen dituen egokitzapen batzuk gora behera—, sistema berbera nabari da prosagintzan.

Prosagintza-sistema hori, «salvatis salvandis», sartalde osoan hizkuntza landu guztiek erabiltzen duten berbera da, gainera.

Eta aitzin honetan esan dugun bezala, horrek ez gaitu gehiegi harritu behar. Izan ere, sartalde eta etzinalde guztian bada prosa egiteko modu bat, leku guztietan bat bera dena; xehetasun batzuetan hizkuntza berezien berezitasunari amore emanez, hori bai; baina, hori gora behera, egia da diogun hau, hots: prosa egiteko tankera berbera dela hizkuntza berezien gainetik.

Prosa egiteko modu hori, Mendebaldeko kultura bera bezala, Grezian sortu zen; gero latinak hartu zuen eta latinen bidez Mendebaleko hizkuntza landu guztietara zabaldu da. Gure idazle zaharrek, euskalki guztietakoek, bide hori bera hartu zuten. Beraz Europako beste hizkuntzetako idazleak bezalaxe jokatu ziren. Eta zinez, ez dugu beste biderik. Ez dugu euskara salbatuko bakar-bidetik ibilaraziz edo beste hizkuntzen errepidea alde batera utzirik.»

Lerro horiek argi uzten dute Villasantek prosari buruz zeukan burutapena, bi elementuz osatua zegoen kontzepzioa: euskal tradizioa alde batetik, eta europar tradizioa bestetik, alegia, geure baitatik ateratakoa eta gure kultura europarretik datorriguna. Lehenengoa dela eta, buru-belarri aritu zen hura ezagutaraziz, hala nola lehenago aipatu dugun euskal literaturaren historia ezagunaren bidez, edo Axularren obra argitaratuz eta berari buruzko hainbeste lan idatziz. Bigarrena dela eta, garbizalekeria antzuaren kontrako burruka etengabea, eta bere berea zuen prosa dotorearen lanketan, ez baitago zalantzarik hori dela berak darabilen prosaren lehen ezaugarria: dotorezia. Hain zuzen ere, horixe da arestian irakurri berri dudana goiko aipu horretan senti dezakeguna, edo Angeles Sorazuri buruz ari delarik, hau da, Villasante fraide frantziskotar fededuna oinarritzko eta barru-barruko bere fedez (9-10. ork.) ari delarik, soma daitekeena:

«Jainkoaren esperientzia bada, beraz, eta horren behar gorria du gaurko kristauak. Zerbait eraginkorrik baldin bada, horixe. Esperientzia hori, bestalde, era askotakoa izan daiteke: maila arruntean gelditzen dena eta baita maila hori gainditzen duenetakoa ere —eta azken honetarikoa izan zen Sorazurengan azaldu zena—. Jainkoak guganatzeko dituen bide eta bidexkak konta ezinak dira, eta gu ez izan inor Hari mugak eta legeak ezartzeko.

Jainkoa ez da hil, bada. Birao horrek ez du ez buru eta ez hanka. Jainkoa bizi da. Eta Haren presentziaren azterrenak Angeles Sorazu gure herritar honen bizitze eta idazkietan miragarriki islatzen dira».

Ez da zaila igartzen zein den dotorezia horren iturria: alde batetik ekonomia, adierazpenaren laburtasuna dei genezakeena, eta horrek berarekin darraren erritmo azkarra, eta bestetik puntuazio-sistemaren erabilkera zoliarekin batera lokailuen dantza arina. Izan ere, bera izan delarik Axularren ezagutarazle nagusia, ez da Sarako erretore nafarraren jarraitzaile sutsua Urdazubikoak zerabilen arnasa luzeko perpausetan. Hona hemen, diodanaren erakusgarri «Euskararen auziaz» saiotik ateratako paragrafo bat, non puntuazioaren jokoa eta sinonimiaren erabileraz bezala, hala errepikaduraz, beharbada Axularrak lortzen zuen tankerako ondorio estilistikoak erdiesten baititu, baina nahiko modu desberdinez (143. or):

«Idatz-hizkerak literatur tradizioz eratzen, osatzen eta sendotzen dira, hots, idazleek bata besteari jarraikiz. Izan ere, idazleek, normalki behintzat, ez dute idazten berek edo beren txokoko jendeak hitz egiten duen bezala, beren aurretik egon diren idazleei jarraikiz baizik. Egia da denetarik egon ohi dela, eta batez ere gure artean eboluzio normal bat egon ez delako, tradizio hori hautsi, ahaztu, berriaz hartu eta gora-behera asko gertatu dela; baina funtsean tradizio bidez sortu eta osatu ohi dira idatz-hizkerak. Horrek ez du esan nahi, bestalde, hizkera mintzatuari edo biziari idatz-hizkerak ez diola deusik hartzen. Halako oreka lortzen da biziaren eta tradizioaren artean.»

Testu hau irakurrita, alde batetik, ez da zaila ulertzea Jose Luis Zurutuak zioena: *errekastoa zelai artean kantari doan bezala, halaxe ateratzen zitzaizkion esaldiak, berezkotasun osoz*. Bestetik, Axular maisuarekiko diferentzia ikusteko, ez dugu gorago aipatu dugun Luis Villasanteren beraren sarrera-hitzaldia baino berbegiratu behar. Hor askozaz ere axulartarragoa zen, hor perpausak luzeagoak ziren eta loturak egiteko moldeak askozaz gertuago zeuden Sarako erretoreak zerabiltzanetatik. Hona hemen hitzaldi hartatik ateratako beste aipu luzexka bat diodanaren erakusgarri (93-94. ork), bere-bereak izateko ziren joerak somatzen hasten badira ere:

«Egun arte euskara laborari-arrantzale batzuen hizkuntza bat izan dela erran dugu. Beraz, dagoen bezala, zibilizazinoko hizkuntza landuen ondoan jarritz gero, anhitz gauzaren faltan aurkitzen dela erran beharrik eztago. Laborari-arrantzaleek izan ohi dituzten arazo, harreman ta beharrkizunetarako beharr dena ba-du. Baina egun euskara bi hizkuntza landu handiri ahurpegi eman beharrean edireiten da, heiekin aitzinez-aitzin gudukatu beharrean, eta baldin bi erdara hoik nagosituren ezpazaizkio, beharr-beharreko dugu euskarari harmen emaita, indarrgailuz homitzea, ahal den neurrian heiekin berdin dadin, heien abantailak beregana ditzan, bertzeek baino kondizino txarragoko zelako azpiko athera ez dadin.»

Aipu hauetan, bestalde, oso da argia literatura-hizkuntzari buruz, edo aita Villasantek zioen bezala, idatz-hizkeraren gainetan hark zeukan burutapena. Antzeko zerbait soma dezakegu ondoko honetan ere (153. or.):

Prosa-barnean mota bat baino gehiago dago. Euskararentzat, berriz, gure mendean mota bat bakarra hartu nahi da, hura bakarrik zilegitzat hartuz. Badira idatz estilo batzuk esaldi motx eta laburrez baliatzen direnak; beste batzuk periodo luze eta korapilotsuez osatuak. Bada elkar hizketari dagokion estiloa, bada ipuin eta kontakizunetakoa, bada errefrau eta atsotitzena, bada azalpenetakoa, eta gero prozesu eta auzietan erabiltzen dena, administralgokoa etab. Euskarak, ahal dela, denak etxekotu behar ditu. Aitortu behar da Altuberen Erderismos-ek, bere merezimendu guztiekin, bide bakar, zurrun eta estuegia uzten diola euskarari.

Zernahi gisaz, guk geure tradizio zaharra ezagutu eta aztertu behar dugu eta harekin zubia egin. Hori eginez, Europako hizkuntza landu guztiekin har-emane-tan sartzen gara. Gaur, hemen, hizkuntza bakar-bidetik erabili nahi izatea suizidio-bidea hartzea izango litzateke.»

edo ondoko honetan, non bere ideiak oso modu garbian azaltzen dituen, bere idazkeran, prezeski, gauzatzea espero zituen ideiak eta burutapenak (55-56. ork.):

«Hizkuntzak tresna batzuk direla esan dugu. Eta tresnak, noiz eta tresnatzat hartzen baitira, orduan daude beren lekuan eta orduan eta hala betetzen dute bere betebeharra. Tresnatasun hau ona da, beraz, eta euskararen auzia bideratzeko, beharrezkoa. Askotan hori ahaztu egin dugu, orde. Euskara hartu izan dugu itxurakeria egiteko, paparrean eramateko domina bezala edo erakustokian jartzeko pirtxia bailitzan.

....



Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta Andolin Eguzkitza, euskaltzain oso berria.

Baina bada beste tresnatasun-mota bat txarra dena, hizkuntzari, luzarora begiratzuz, mesede baino kalte gehiago dakarkiona. Tresnakeria deituko genuke.

....

Hizkuntza herri baten ondasuna da, guztion ondarea. Orduan ez du inork beretzat eksklusiboki hartu behar, beronen jaun eta jabe balitz bezala. Aukera era ikusmolde partikularren gainean dago hizkuntza. Pluralismo bat dagoen herrian euskara ezin lot daiteke partikularismo batekin. Euskara zinez maite duenak aha-legendak egin behar ditu guztiona dena beretzat bakarrik ez hartzeko; ez luke honetan hainitsu izan behar. Zoritxarrez, beldur naiz itsutasun hori gure artean zabaldugei ez ote den.»

Utz iezadazue, haatik, Ángeles Sorazuri buruzko ondoko aipu honekin amaitzen, ostera ere bai Villasanteren erlijiotasun eta bai beraren euskara erabiltzeko erakusgarri ezin hobekoak (63-64. ork.):

«Ama Sorazuren Jainko-bidean halako antinomia edo kontraesan-suerte bat nabari da, bere bizi guztian zehar berekin ekarriko duen antinomia bat, alegia. Bere aldetik edo bere alde beti nahiko eta maiteko du Jainko-bide arruntetik ibili eta hortik Jainkoagana joan. Zein da berarentzat bide hori? Jainkoak eta Eliza Amak fededun orori Kristau Dotrina eta Liturgiaren bidez irakasten diona. Beste bideak, hots, desarruntak, ohi ez bezalakoak, pribilegiozkoak, beretzat ez ditu nahi, beldur die.

....

Nola elkarrekin lotu bi hari-mutur hauek, hots, berak nahiko lukeena eta Jainkoak beretzat nahi duena? Kontraesan edo ezin konpondu hau nabari da Sorazuren portaeretan. Lotsa eta higuin da bere barneko sentipen goitiarrak eta hartzen dituen faboreak aitorle edo arimako Zuzendariei azaltzeko. Jadanik dakigunez, Jainkoaren borondateari muxin eginez egon zen urte luzetan arimako Zuzendari gabe, eta dena barneko fabore jainkotiar horiek ez agertzeagatik. Are gutiago kontatzen zizkien gauza horiek moja lagunei edo beste inori.»

**2.3.** Testu horretan jadanik, ederto asko somatzen da, nire ustez, Villasanteren izakera eta hala pentsatzeko nola sentitzeko manera. Sorazuri buruz ari da, baina ez dago zalantzarik bere buruaz ere badabilela, bera ondo ezagutu zuten guztiek, beraren ondoan bizi izan zirelako, edo beraren ondoan lan egin zutelako, bat datozelako zalantzarik bat ere gabe, apaltasuna, herriko jende xehearen moldeen zaletasuna, eta oroz lehen xalotasuna zirela beraren munduan izateko modu nagusiak, bertute hitza handiosoegitatzat jotzeko prest bagaude bederen. «*Bihotz garbikoa zen, eta umetzaroko errugabetasun hura bere hartantxe gordetzen zuen*» dio bere hogeita hamar urteko lagun eta ordenakide Jose Luis Zurutuzak. Laburtu beharrean egonen bagina halandaze, esanen nuke ez zela oso urruntzen Asisko Frantziskok proposaturiko eredutik, aipatu ditugunei pobrezia gehitzen badiegu, bai dirua erabiltzeko orduan, bai jateko moduan, beti ere eta edonon bere frantziskotar abituarekin jantzia, eta Zurutuzak ere dioen bezala, bere gelan liburuetatik aparte ezer gutxi hormidura gisa. Ordenan ere ez zuen inoiz kargurik izan, eta argi derragun, ezin zitekeen beraren gaitasunik ezagatik

izan, Euskaltzaindian buru egin zuen hamazortzi urtean nabarmen utzi zuen legez. Antza, adiurre bizikoa ere bazen, eztanda ere egiten zuena, baina behingotan itzultzen ei zena bere senera. Euskaltzaindian behar zenean ez laño, baizik eta larderiatsu ere bazekiela izaten badakite hura ezagutu zutenek, baina era berean une horiek laburrak zirela, eta inoiz ere ez sentimendu gaiztoen iturburu. Aita Zurutuzari ostera ere hitza emanda, honela zirriborratzen du aita Villasante:

«Giza izaeran apal ikusten genuen, hainbeste sari, titulu eta omenaldik harrobiderik ematen ez ziotela –Eusko Jaurlearitzaren saria Lan Onari, Eusko Ikaskuntzaren Humanitate eta Giza Zientzia, Erakunde honen kide izendatua, Bizkaiko Aldundiaren omenaldia...–. Engainurik gabeko xalotasunez jantzia agertzen zen, denentzat irekia, Euskaltzaindiaren unerik gogorrenetan ere (heriotza-mehatxua bidali zioten behin!) bere barrua behartu gabe aurrekoarengana hurreratzen zekiena. Hain zuzen ere, hortxe zuen bere «armarik» onena oztoporik zailenak gainditu eta atea irekitzeko. Bere apaltasunean gizon nolabait ausarta zen, ordea: hala erakutsi zuen soldaduskan, beretzat eta fraide lagunentzat lantoki egokiak lortuz; behar zenean, edonora joateko prest egonez; Euskaltzaindian nola sartu aurkitu zuenean (1951), euskaltzainburu gisa (1970-1988) aurkalarari sutsuenak bakebidera ekarri eta bereganatzean...»

Ondo entzun duzue, «*bere barrua behartu gabe aurrekoarengana hurreratzen zekiena*». Ba ote dagoke hori baino laudorio eta alabantza ederragorik? Nekez. Oraindik orain ondo gomutatzen dut niri behin gertaturikoa, euskal hizkuntzalarien artean nengoen baten. Zergatik ez dakidala, aita Villasanteren «la oración causal» edo «*Sintaxis de la oración simple*» aipatu ziren, bai eta berak esandako zerbaiti Mitxelenak egindako iruzkin kritiko bat, liburuan bertan «*Mitxelena apostilla...*» formularekin hasten ziren oharretako baten agertua. Eta bat-batean gure arteko batek esan zuen: «Villasante edo ergela da, edo oso frantziskotarra. Mitxelenaren iruzkinak ematen dizkigu beti, bai eta beraren ideien kontrakoak badira ere. Fraide katoliko txotxolo hauek...». Ez dakit egia esan, berbok horiexek izan ote ziren, baina antzekoak bai, eta esandakoaren izpiritu horixe zen, zalantzarik gabe. Horra hor diferentzia, harroxo agian bere garunari eragiteko oso trebea den baten eta izpiritu handi eta eskuzabal baten artekoa, hau ere inteligentzia ez gutxikoa. Amaitzeko, ekar ditzadan Edorta Jiménez-ek 2001eko urtarrilean *Pérgola* aldizkarian argitaraturiko artikuluan, «Euskara batuaren emagina hil da», aipatzen dituen aita Villasanteren zantzu eder bi, gizonaren handiaren erakusgarri gisa:

- a) «Villasantek euskara batuarenak Pernandoren egiak balira moduan azaltzen zituen. Edonork ikusi eta bideratu ahalko zituzkeenak balira legez».
- b) Esan liteke «Villasantek herriak egin zezan eskatzen zion sakrifizio modura hartu zuela Euskaltzainburu ihardutea...Ikasgai ederra, karguei zelán itzi ez dakien hainbeste ikusten dugun aroan».

Izan ere, bizitza eredugarria benetan. Izan ere, gaur egungo gure gizarte kanpolarrosa honetan, gaur egungo gizarte agertuzale eta ezerezaren aldeko ho-

netan, Pastor Izuelak esan zuen bezala «hil da karidadea, bizi da mengantza» lema nagusi darabilen gizarte erkin honetan, egiaz jarraitzeko guraria sortarazten duen nortasuna da Aita Luis Villasanterena. Horrexegatik, urrats bat aurrera eginda eta bere nortasunaren ezaugarririk behinena eskuartean harturik, xalotasuna, ezaugarri horren laudorioa egin gurako nuke, ez ordea Luis Villasanteren ohorean William Butler Yeats poeta irlandarraren «When You Are Old» olerkia irakurri gabe, euskaraz «Zaharra zarenean» bezala itzuli dudana:

### *When You are old*

When you are old and grey and full of sleep,  
And nodding by the fire, take down this book,  
And slowly read, and dream of the soft look  
Your eyes had once, and of their shadows deep.

How many loved your moments of glad grace,  
And loved your beauty with love false or true,  
But one man loved the pilgrim soul in you,  
And loved the sorrows of your changing face;

And bending down beside the glowing bars,  
Murmur, a little sadly, how Love fled  
And paced upon the mountains overhead  
And hid his face amid a crowd of stars.

### *Zaharra zarenean*

Zaharra zarenean, urdin zure ilea eta loguraz beterik,  
sutondoan makurtuz, har ezazu liburu hau,  
eta irakur astiro, eta begirada bigunaz egizu amets,  
zure begiek behin zutena, eta beraien itzalen ilunaz;

hainbatek zituen maite zure grazia alaiaren uneak,  
eta zure edertasuna amodio faltsu edo egiazkoaz,  
baina gizon batek maite zituen zukan arima erromesa,  
eta zure aurpegi aldakorren minak;

eta beherantz kulunkatuz suburdina gorien alboan,  
murmurika ezazu, apur bat histo, nola Amodioa itzuri zen  
eta urrats egin zuen mendi-gailurretarantz  
eta bere aurpegia ostendu zuen izar-multzo baten erdian.

## 3. Xalotasunaren laudorioa

3.0. Hain da ezaguna esaera, ezen erromatarrek jadanik ere bazeukatela horretarako formula egokia: **nihil novum sub sole**. Nik ere horrekin egin nuen topo –ezer berririk ez dagoela eguzkipean– Aita Villasanteren nortasun eta bizitza aztertuta, xalotasunaren laudorioa egin behar nuela erabakitzean, bene-

tan uste dudalako horretan zetzala gernikar fraidearen handitasuna, eta halaber sinetsita nagoelako, xalotasuna dela gizakiaren ontasuna, eta saildutasuna bera ere, erdiesteko gako ezin itzurizkoa. Eta koinatua dudan Jazinto Agirre-  
ren iradokimenez eta laguntzaz, 1884an Alemaniako Sarre eskualdeko Ris-  
senthal deritzon herrian sortu zen, eta Münsterko unibertsitatean irakaslea ze-  
larik, 1940an hiri horretan hil zen Peter Wust filosofoaren berri izan nuen, eta  
orobat berak idatzitako liburu eder eta interesgarri batena: «Naivität und  
Pietät», alegia, «Xalotasuna eta errukia».

Liburu horretan, bere bilaketaren mugarri bi aipatzen ditu, berak dioe-  
nez, xalotasuna eta errukiari buruz gogoeta egitean sustagarri funtsezkoak  
izan zituen bi metafisikalariren aipu bana hain zuzen, Augustin Hiponako-  
rena bata, gure tradizioko Jaun Done Augustinarena, Hiponako apezpikua, eta  
Johan Gottlieb Fichte filosofo alemanarena bestea. Lehenengoak honela esan  
zuen latinez:

*«Fecisti nos ad Te, Deus, et inquietum est cor nostrum, donec requiescat in  
Te»* (Zure irudira egin gintuzun, oi Jainkoa, eta gure bihotza artega dago Zuga-  
n atsedean hartu arte).

Alemanak, aldiz, honela zioen euskarara itzulia:

«Handiusteaz hasi ginen filosofatzen, eta gure inozotasuna galdu genuen;  
geure biluztasuna ezagutu genuen orduan, eta ordurik geure burua salbatzeko be-  
harrak eraginda filosofatzen dugu»

*[«Wir fingen an zu philosophieren aus Übermut und wir brachten uns da-  
durch um unsere Unschuld; wir erkannten unsere Nacktheit, und seitdem philo-  
sophieren wir aus Not für unsere Erlösung.»]*

Eta zer da xalotasuna Wust-entzat? Nork bere izaerarekiko duen fidelta-  
suna, harmonia eta maitasuna. Izan ere, maila bi desberdintzen ditu filosofo  
alemanak xalotasunean, lehen xalotasuna eta bigarren xalotasuna. Lehenengoa  
berezkoa dugun «arimaren bake-egoera» da, «seelische Ruhelage» dio Wust-  
ek alemanez, gure naturaz datorkiguna, kontzientziak ematen digun askatasu-  
narekin batera heldu zaiguna. Bigarrena aldiz, heldutasun intelektualak ema-  
ten diguna da, lehen xalotasunaren erauzketaren ondoren, jakintsuaren bideak  
erabilita, bizitzan eta esperientzian zehar egindako burrukaz geroztik lortzen  
den arimaren azken bake-egoera, ahalegin eta joranez lortua, zeren, Bibliako  
pasarte eder hura aipatuz, Wust-ek seinalatzen duen legez, haurrak bezala ez  
bazarete bihurtzen, zeruetako erresuman sartuko ez baitzarete. Errukia, aldiz,  
xalotasunaren ondotoxoan kokatzen du Wust-ek, elementu osagarri moduan.

Horra hor bada, Luis Villasante Kortabitarte gizakia kokatzeko testuin-  
gurua, ororen gainetik gizon xaloa izan zelako aita Villasante, xalo eta erru-  
kiorra, jakintsuaren bizitza egiten jakin zuena, zaratarik gabe, espanturik gabe,  
harrokeriarik gabe, isiltasun eta apaltasunez, eta Wust-ek ere ondo dioen mo-  
duan, benetako jakintsuen modura tragikotasunik gabe eta optimismoz betea,  
haurrena bezalako errugabetasunez hornitua.

**3.1.** Gizakiak bere askatasunean mutur biren artean ibili beharra du, naturaren finkotasunaren eta Jainkoaren mugimendu orekatuaren artean, kontzientziak ematen dion askatasunarekin ibili ere. Gizakia ez dago bere baitan itxia, jaiotzez geroztik kontzientziaz bizi da eta ezagutzaz aurrera egiten, heriotza delarik beraren bizimodu horren aldatzaile nagusia. Gizakiaren bizitzak, hain zuzen ere, arriskua dakar berarekin, zeren bizitzaren, filosofiaren eta erlijioaren azkenengo oinarriak ezin azter baitaitezke zehaztasun osoz. Horra hor, bada, xalotasunaren eta errukiaren tokia, gizakiarengan bakarrik agertzen direnak, natura, gauzen, landareen eta animalien mundua berez itsua delako eta halandaze kontzientziarik gabea, hots, askatasunik gabea.

Xalotasuna fideltasunarekin ere doa loturik. Lehen xalotasunaren jabea, haurra, fidela da eta barrutik harmonikoa, h.d., harmoniaz betea, erran nahi baita, egiatia eta munduarekiko duen lotura ostentzen ez duena, optimismoz betea. Ez da ustekabe hutsa gizateriaren historiako gizaki handiak hala izatea, baikor eta xumeak, salbuespenak salbuespen izan diren bezala. Maltzurtasuna da, izan ere, jarrera honen kontrakoa. Horregatik Villasante bezalakoak, edo eta historiaren izpiritu handiak, erotzat jo izan dira beti, eta inozotzat.

Baina badago joera horrekin esperientzia eta zuhurtzia ere lotzeko aukea, eta horri deritzo Wust-ek bigarren xalotasuna, alegia, lehen xalotasunari ja-kinduria gehituz geroztik sortzen zaiguna. Ez dut uste oso erratuta nabilenik, beraz, baldin eta badiot bigarren xalotasun horren bidez zuzendu zuela Aita Villasantek Euskaltzaindia, gure erakundearen zuzendaritzan eman zituen hama-zortzi urte latz horietan: errukiz beteriko xalotasunaz. Zeren errukiak esangura bi baitauzka, maitasuna eta mirespena, maitasunaz bestearengana hurbiltzen baikara alde batetik, eta miresten dugularik bestetik, berarengandik urruntzen. Gure barruan bertan ere agertzen da errukia: gu geu garena ontzat jotzen dugunean apaltasunez. Errukia desagertzen da, ostera, adimen hotz eta harroa eta gizakiaren amodiorako joeraren arteko harmonia apurtzen denean. Errukirik gabe, hain zuzen, bere sustraiak galtzen ditu gizakiak, isolatu egiten da.

**3.2.** Hizkuntzalaritza modernoaren sorreratik jadanik hainbat planteamendu zelanbait dilematiko agertzen da, esate baterako, XX. Mendearen hasieran Saussure-k postulaturiko pareak, dela adierazpen-adierazia bikotea, edo hizkuntza-hizkera bikotea, azken hau gaur egungo linguistikan, gramatika-hizkuntza formapean agertzen dena. Era horretan, argia ikusiz joan gara hizkuntzaren mundu konplexu horretan, eta gauzak espero dugun bezala aitzinera-tzen badira, garunaren egituraren aurkikundean ere aurreramenduak lortzea espero izatekoa da. Horregatik zioen Chomsky-k duela hogeita hamar urte baino gehiago, hizkuntzalaritza psikologiaren adar bat dela. Hizkuntza, edo zehatzago berba egiteko, gramatikak gizakiaren izaeran daukan garrantzia kontutan hartuta halandaze, ez da harritzekoa antzeko kontrakar eta pareak aurkitzea naturaren beste alderdietan. Halako motor dialektiko gisako bat irudika daiteke guzti honetan, elkarren kontra daudela ematen duten kontzeptuak

elkarrekiko inplikazioaz errazago igar daitezkeelako, naturari buruz proposa daitezkeen banaketa guztiak kontrolagarriak izanen badira, adar bikoak izan behar baitute, inoiz ez hori baino gehiagokoak. Era horretan planteatzen diren arazo eta korapiloak orduan, alderdi biak kontutan hartuta bakarrik jarriko dira askatzeko puntuan, ez ordea bata edo bestea ezabatuta.

Luis Villasanteren bizitza ikuspegi honetatik, hizkuntzaren arazoen sustaiekin kezkatutako intelektual baten bizitza izan da, eta kezka horrekin lotuta G. Marcel-ek «misterio» terminoarekin definitzen zuena, h.d., ez sekretua dena, ezperez sakona eta ezagutzeko zaila dena. Bera ez zen hizkuntzaren bizitzaz kanpotik arduratu, euskara mirespenaz aztertzerantz etorri diren hainbeste euskalari atzerritarren antzera, ez zen ikusle bat izan, ezpada lehen lerroko jokalaria eta guda-burua, euskararen bizitzari eusteko esperantza agortezinaz hornitua. Horra hor beraren gatazkaren zentzua euskara batuaren sorkuntzan eta garapenean.

Urdaibaiko ingurualde eder eta bere garaian zelanbait oraindinoko kutsatugabea jaio zelarrik, guztiz aberatsa zen amarengandik jaso zuen jaraunspena, aitarengandik hartutakoa guztiz bestelakoa izan arren, inoiz ere zalantzatan jarri ez zuena. Xalotasunaz hartu zuen eman zitzaiona, era naturalean, eta landuz segitu zuen bizitza agortu zitzaion arte. Hor ikus dezakegu katenbegiaren metafora osterantz ere gauzatu, xalotasunaz eta harrokeriarik gabe jaso baitzuen Bizkaiko euskaldunon altxor linguistikoa, eta apaltasun osoan landu hil arteko ekintza etengabea. Katenbegia ez baitu munduarekiko lotura besterik adierazten, eta mundu hori ezagutuko dugulako konfidantza. Era horretan hasierako xalotasuna behatzarria izan beharrean, eragozpen eta traba bihurtu beharrean, ez da ulertzapenaren bermea baizik. Xalotasun hori hauzkaiztasuntzat jo daiteke beraz, zabaltasun eta araztasuntzat, inozotasun eta irekitasuntzat, fideltasuna azken batean.

Era horretan hizkuntza bien arteko talka, Euskal Herriko gatazka linguistikoa gaztelaniarekin Hegoaldean, eta lehenago gaskoinarekin, baina orain frantsesarekin Iparraldean, gogoetatzearen bidez berkokatzen dugu, eta Txepetxek dioen legez gure etorkizunaren habe bihurtzen. Testuinguru horretan uler daiteke bakarrik Aita Villasanteren jarrerak euskara batuaren aldeko ekintzetan. Ez dago ezer asmatutik, ez dago espekulazio antzurik, bere lehen xalotasunaz gure aurrekoek eman zigutena miretsi izan du, eta errukiaz erabili. Errukia ez da gizon apal baten eskertzeko jarrera baizik, bera baino sakratuagoa dena eta dohainik eman zaiona ohoratzekoa. Gorago genioen legez, maitasunaz hurbiltzen da, eta mirespenaz, osterantz, urruntzen. Horrexegatik, esandako guztiaren laburpen gisa, zer ederragorik Kostandinos Kavafis poeta greziar handiaren *Thermopylak* poema baino, Olga Omatosekin batera grekotik itzulia:

*Ohorea bizitzean  
beren Thermopylak mugatu dituzten eta gordetzen dituztenei.  
Inoiz ere betebeharrari itzuri gabe;*

*zuzen eta artez beren ekintza guztietan,  
baina errukiz eta bihotz onaz ere;  
eskuzabal aberats badira, eta  
pobre direlarik ostera ere apur bat eskuzabal,  
ahal duten guztia lagunduz;  
beti egia erranez,  
baina aiherrik gabe gezur egiten dutenentzat.*

*Eta ohore handiagoa dute merezi  
igartzen diotenean (eta askok diote igartzen)  
Ephialtes agertuko dela azkenean,  
eta medoek akabantzan garaituko dutela.*

**3.3.** Esandakoak entzun eta gero, agian norbaitek pentsa dezake irrazionaltasunaren aldeko jauginean jausi naizela, eta ez da hala. Arrazoiaren eraginez lorturikoak ez dira gutxi, ezpada gure azken mende biotako aurreramen-  
du guztien funtsa, hala zientzietan, nola gizakien eskubideetan. Horrek ordea ez du ezabatzen gizaki kontziente eta librearen askatasuna, ez du agortzen gizakiaren barruan dagoen larritasuna, nire aburuz ez baita ezelan ere egia hor kanpoan deseginez joan garen naturaren objektu horiek bezalakoak garenik, ez baita nire gardiz inolaz ere ontzat jotzekoa giza-arima kanpoan agertzen diren elementuekin bukatzen denik, azken batean geure buruaz berba egiteko eta go-goeta egiteko aukera ematen digun hizkuntza ez baita alferrik sortu, geure burua iraganean, orainean eta geroan kokatzeko ahalmena ematen digun pentsamenduaren euskarri den hizkuntza ez baita debalde, edozein dela hori gertatu den modua, gure espeziean bakarrik gertatu.

Aurrera bizi behar dugu, geure arbasoek eman ziguten hizkuntzaz pentsatzen segi, eta apaltasun osoz geure ondorengoei eman haiek utzi zigutena, nahi beste landu eta erabilia, geure bizitza egiteko behar den beste, baina beti ere esperantzaz eta fideltasunez. Bizi, hori da gure naturaren agindua, baina Miquel Martí i Pol olerkari katalanak bere poema «La vida» dioen legez, beti ere eta etengabe arriskatzuz:

### *La vida*

*Res no em distreu i m'afeixuga tot.  
Potser mai un dolor tan persistent  
no m'havia colpit.*

*I Què puc fer?*

*No espero cap prodigi,  
cap canvi inesperat i sorprenent.  
Del pou se'n surt fent-se malbé les mans  
i potser els sentiments.*

*Només vivint,*

*amb tot el risc i tota l'esperança,  
reconduïm la vida.*

Azkenengo lerroak horrela diote: «putzutik ateratzen gara eskuetan min hartuz, eta agian sentimenduetan. Bizitzearen bizitzeaz bakarrik, arrisku eta esperantza guztiarekin, bideratzen dugu bizitza». Argiago eta ederrago, ezin.

Baina bizi geure neurrian, xalotasuna zuhurtziaz erabiliz, eta ez harro- eta maltzurkeriaz, Kavafis-ek irakurritako poeman dioten bezala, eskuzabalak izanik, egia beti erranez eta gorrotorik gabe gezur egiten dutenentzat. Bada ordua geure barruan begira dezagun, eta kanpolarrosak izan gabe, ezpada errukior eta harrokeriarik gabe heriotzaraino bizi gaitezen, geure ahaleginez jakintsuago bihurtuz, eta segurtasunarekin apal- eta xalotasunean dugula mundu erkin honetan bizi garen bitartean zoriontasunaren itxaropen bakarra.

### Bibliografia:

LUIS VILLASANTE. 1988. *Euskararen auziaz*. Arantzazu, Oñati: EFA. «Luis Eleizalde» sailaren 9. Liburukia.

———. 1990. *Ángeles Sorazu. Mezua eta bizia*. Donostia: Erein. Saiopaperak.

PETER WUST. 1925. *Naivität und Pietät*. Tübingen. J.B.C. Mohr.



**BILBOTIK SANTURTZIRA**  
**Andolin Eguzkitza euskaltzainaren**  
**sarrera-hitzaldiaren erantzuer**

*Santurtzi, 2002-II-23*

*Xabier Kintana Urriaga*

Santurtzi Herriko alkate jauna eta alderdi politikoen ordezkari zareten zinegotzi jaun-andreok, Eusko Jaurlaritzako kontseilariok, itsas herri honetako hiritarrak, Euskaltzainok eta hona etorri zareten lagunok: eskerrik asko egin diguzuen harrera bikainagatik, ohore eta agur guztioi.

Sr. Alcalde y señores y señoras concejales de Santurtzi, representantes de los partidos políticos, consejeros del Gobierno Vasco, ciudadanos de este pueblo marinero, sras. y sres. académicos y amigos todos aquí presentes: muchísimas gracias por la excelente acogida que nos habéis dispensado, mis respetos y un saludo cordial para todos.

Gure Akademiaren ohiturari zintzoki jarraituz, Andolin Eguzkitza euskaltzain berriaren sarrera-hitzaldi bikainaren erantzuer euskaraz egingo du dan arren, garen tokiko egoera soziolinguistikoa kontuan harturik eta bertoko gogozko euskaldun erdaldunek merezi diguten errespetuagatik ere, zilegi izan bekit, hasiera-amaieretan bederen, erdaraz ere hitz labur batzuk esatea.

Todos conocemos esa bonita canción que tanto ha popularizado, dentro y fuera de Euskal Herria, el nombre de este concejo, uno de los siete del valle encartado de Somorrostro. Me estoy refiriendo, naturalmente, a *Desde Santurce a Bilbao*, cuya melodía y letra nos son entrañablemente familiares desde la niñez. Por otra parte, es justo confesar, que gracias a ella la mayoría de los vizcainos tuvimos ocasión de aprender, casi sin darnos cuenta, nuestras primeras palabras vascas: *Sardina freskue*, testimonio inconsciente, por otra parte, de la lengua, que todavía no hace mucho, era la habitual de los habitantes del puerto de Santurtzi.

Hoy, Euskaltzaindia, La Real Academia de la Lengua Vasca, ha querido realizar el trayecto inverso, viniendo Desde Bilbao a Santurtzi, *Bilbotik Santurtzira*. Y como sería ilógico y totalmente absurdo tratar de vender sardinas

a quienes han tenido y aún mantienen una excelente tradición de pescadores, que se evidencia en sus magníficos restaurantes, Euskaltzaindia os ha traído en su cesta algo distinto, un producto que sabemos que os es muy querido: *Euskara freskue*.

Está claro, que, después de más de veinte años de singladura autonómica, el euskara no es tan desconocido en el Santurtzi actual. Gracias a ello, ha desaparecido aquella sensación que muchos ciudadanos tenían durante el franquismo, impresión muy real, de sentirse privados de algo que, aunque no lo habían poseído nunca, era también patrimonio suyo, ya que sentían que la administración centralista les estaba robando una parte esencial de la herencia histórica y cultural de su propio pueblo. Afortunadamente no todos se resignaron. De hecho, son muchos los santurtziarras que, gracias a su esfuerzo, al empeño y sacrificio de sus familiares, a la labor realizada por las ikastolas, las escuelas públicas y privadas actuales y los euskaltegis, conocen y hablan perfectamente el idioma originario y más antiguo de nuestro país, y también de toda Europa. Y buena prueba de su excelente nivel de conocimientos es, precisamente, el hecho que hoy conmemoramos: la entrada en Euskaltzaindia de un hijo de Santurtzi, de Andolin Eguzkitza, euskaldun berria, representante y símbolo de la recuperación del euskara en la margen izquierda de nuestra Ría, y primer académico de las Encartaciones, que pasa a ocupar la vacante dejada por el académico Luis Villasante, a causa de su fallecimiento.

Lehenago esan dudan bezala, gaur Bilbotik Santurtzira etorri gara euskaltzainok. Hona ekarri gaituen itsasontziak, gainera, *Euskal Herria* izena dauka. Sinbolo polita eta esanguratsua, nik uste, hona Euskal Herri osoko akademikoak etorri garelako: Arabarrak, Bizkaikoak, Gipuzkoarrak, Lapurdikoak, Nafarroa bietakoak eta, hobe ez, Zuberotarrak ere bai. Esan liteke, beraz, geure herriko toki guztietako enbaxadoreak bildu garela gaur hemen, Eguzkitza adiskideari berak ongi merezi duen omenaldi hau eskaintzeko.

Niri dagokidanez, ordea, aitortu behar dut ez dela oraingoa izan Ibaizabalén zehar txango eder hau egin dudan lehen aldia. Gure aitita Luis Urtiagak, gaitzizezez Revertek, Bilboko itsasadarrean lan egiten zuen, haren seme Luisek eta Karmelok bezala, merkatalontzi handiak eta gabarrak atoian garraiatzen. Hori dela eta, gure txikitan, Karmelgo ama birjinaren egunean familia osoa bere atontzian sartu eta honainoko ibilaldia egiten genuen, baina egia esan, ordutik hona ia berrogeita hamar urte igaro ditut ibaibide polit hau egin barik. Horregatik gaurkoak haurtzaroko itsas eta santurtziar gogorapen pozgarri eta ahantzi xamar haiek erakarri dizkit gogora.

Eta portuan itsasotik lehorttera salto egin dugunez gero, ez nituzke aipatzeko utzi nahi inguru honetako nekazariak, holakoak ez baitira falta Enkarterri aldean ere. Normala bezain bidezkoa izaten da lurra lantzen duenak bere ahaleginetik fruitu eta uztia ona lortu nahi izatea. Horregatik, gure baserritarrek, ezer egiten hasi baino lehen, lurra ondo goldatu, gero, mokilak hauste-

ko, narra pasa, ondoren hazi ona erein eta azkenik alorra zenbait aldiz ondo jorratzen dute. Hori bazekien Bernard Etxeparek ere, gure lehen idazle eza-gunak, orain dela laurehun eta berrogeita hamar urte inguru bere poema-liburuan honako hau idatzi zigunean: «*Ogirik ez dakusat biltzen, hazi erein gaberik. Nork zer hazi erein, biltzen dizi komunki*».

Baina egia hori baserritarrek ez eze, arrantzaleek ere ondo baino hobeto jakin dute aspaldian, Santurtzi alde honetan behintzat. Horrexegatik, sardina-baltsak Ibaizabalen bokalean, Abrara sartzen zirenean, bertan hazten zituzten, arrainei bakailao-arrabak edo arrautzak jaten emanez, «masis», deitzen zenarekin alegia, hor egon eta gizendu zitezen. Ondoren, handik aste batzuk geroago, lodi-lodi eta ondo koipetsu zeudenean, beren puntuan alegia, sareekin harrapatzen zituzten. Horiexek omen ziren, ene osaba marinelen arabera behintzat, Santurtziko sardinak, hau da, kantak gogoratzen dizkigun «*sardinas, las de Santurce*» famatu horiek, eta ez itsasotik zuzenik arrantzatu ohi direnak, berton apropos beitzaz ederki potolotuak baino. Jakin dudanez, sistima bera omen darabilte orain japoniarrek ere arrain ederrak eskuratzeko, baina halere, segur naiz ez dutela bertoko sardina mitiko haiek bezalakorik inoiz lortuko.

Eraman dezadan baina, mailua iltzera. Pasadizoak alde batera utzi eta natorren beraz gaurko mamira. Badakit konparazio guztiek aldean daramaten desagokitasun puntua aski nabarmen ageri dela hemen, neronek sinbolikoki «uzta» deitu dudana ez baita, kasu honetan, jateko zerbait, itsasoko sardinak edo baserriko ekoizkinak bezala, euskal gizarte osoaren onerako emaitza kulturalak baizik. Halere, ez genuke ahantzi behar aspaldian esan zitzaigula gizakiok ez garela ogi hutsez elikatzen, eta gure izpirituak ere bere bazka behar izaten duela. Beraz, mundu osoan bezala, gure Euskal Herrian ere, jakintza eta kultura txikitandik jorratu beharreko arloak dira, nagusitan hortik atera nahi diren ondorioak lortuko baditugu behintzat.

Eta txikitari hasi zen etengabeko lantze horren fruitua da, hain zuzen, Andolin Eguzkitza, Santurtziko semea, etxetik hasita, eskola onean hazia, eskola-programetako ohiko irakasgaiez gainera, bere herriaganako maitasuna ere irakatsi zioten maisu zintzoei esker. Orain Unibertsitateko irakasle elebiduna dugu, idazlea, eta, batez ere, bera ezagutzen duzuen guztiok nik bezain ongi dakizuenez, pertsona zintzo, apal eta maitagarria, prestu eta bakezalea, inon bakezalerik bada. Baina euskarazko eta kalitatezko irakaskuntzaren aldekoa eta horren praktikatzaile zintzoa delako, badirudi baten batek Bin Laden balitz bezala aurkeztea nahiago lukeela. Eta hau diot pertsona aski ezagun batek oraintsu egin dituen adierazpen tamalgarriengatik, euskara eta terrorismoa sinonimotzat emanez, ikastoletan, eskola publikoetan eta oro har, irakaskuntza elebidunean, gure hizkuntzaren eta kulturaren alde lanean dihardutenen lan ixil eta bikaina zikindu eta difamatzeko asmo zitalaz. Ene ustez, jaun horrek duen goi karguagatik diplomazia zer den hobeki jakin eta ahoa sarriago ixten ikasi

beharko luke, euskaldunon kontra gustu txarreko eta gizabide txarragoko gezur-irainak lau haizeetara barreiatzen ibili barik.

Gure azken euskaltzaina euskaldun berria dela esan dut, euskara galdua zegoen tokion sortua, baina ez da, lehentxeago iradoki dizuedanez, neguan us-tekabez sorturiko perretxiko bakartia, aurretik ongi zainduriko eta maiz jorratuturiko baratzeako ondorioa baizik.

*Umearen zentzuna etxean entzuna* diosku Bizkaiko esaera zaharrak, eta egia da. Andolinek etxean bertan jaso zituen euskaltzaletasunaren lehen irakaspentak. Gurasoak, Antolin Eguzkitza, Lamiakokoa, eta Celsa Bilbao, Portugalekoa, euskaraz ez zekiten arren, abertzale zintzoak ziren, euskaldun patriota garbiak alegia, eta bertoko balioak estimatzen irakatsi zieten beren sei seme-alabei: Nekane, Edurne, Keltse, Andolin, Josu eta Iñakiri. Eta bada garaia, hitz bakoitzari bere esangura propio eta egokia emanaz, *abertzaletasun* hitzaren adierazle-adieraziak inolako konplexurik gabe berreskura ditzagun. Izan ere, patriotismoa, –horixe besterik ez baita euskaraz *abertzaletasuna*–, hau da, nork bere herria eta jendea maitatzea, hemen eta mundu guztian, pertsona prestu guztientzat ohorea izaten da, norberarena mespreziatu edo gorrotatzen den bitartean, inorena neurrigabeki idolatratzea psikiatrari maizago bisita egin beharko lioketenen arazoa izaten den bezala, ea buru-gorroto eta menpekotasun-konplexua sendatzera laguntzen dien.

Baina Andolinen gurasoak, nolabait esan, euskaldun abertzale aurrekonstituzionalak izan ziren, zorionez, eta pentsatzen eta sentitzen zutenarekin bat etorritik, euskaltzaletasunaren hazia erein zuten beren ondorengoen gogo-bihotzetan. Euskal sentimendu horiek berek bultzatuko zituzten geroago Santurtziko lehen ikastola sortzera ere. Bereziki gogoratzekoa da, gainera, hori guztiori noiz eta gerra galduaren ondoan eta non eta Santurtziko giro erdaldunduan egiten jakin zutela, garaiko debeku eta eragozpen guztiak gora behera.

Dakizuenez, Andolinen aita-amak ez dira jada gure artean, duela gutxi zenduak izanik. Ilusioa egingo zien, zer esanik ez, beren seme nagusia euskaltzain ikusteak. Halere, kristau fededun zintzoak ziren aldetik, segur naiz egun honetan gurekin batera, hortik goitik, betiereko bakeaz inguraturik, irribarrez eta pozik dakusatela Euskaltzaindiak eta Santurtziko herriak gaur beren seme Andolini egiten dioten harrera ona.

Ez genituen, jakina, Antolin eta Celsa bertoko euskaltzale bakarrak, aldamenean beste familia asko ere halakoxeak ziren eta. Horien artean, gainera, letragizon batzuk ere baziren, Genaro Urtiaga idazle eta poeta euskaltzalea edota Joan Anjel Etxebarria idazle eta greko-latindar klasikoen itzultzailea, euskaltzain urgazlea ere izandakoa, adibidez. Horiek guztiok, zeinek bere bi-ziaren lekukotasunarekin, lagundu egin diete Andolini eta bera bezalako askori euskal bidea aurkitzen, gure inguruan erdal itzalak nagusi ziren garai zai-lean. Eta bidezkoa da haiekiko zor hori aitortu eta eskertzea, Andolinek berak ere ederki egin duenez.

Santurtzitik Bilbora joan zen ikastera, aita eskolapioen ikastetxera. Hantxe ezagutu zuen Justo Mari Mokoroa tolosarra, frantsesa ongi irakasteaz gainera, bere *Genio y Lengua* liburu argigarria eskuratu ziona. Beste irakasle euskaltzale batzuk ere izan zituen ikastetxean: Orkoien, Ortigosa edo Valencia eskolapioak edo Javier Eizagirre irakaslea, bere euskal kontzientzian eragin ez txikia utzi diotenak.

Gero Deustuko Unibertsitatara joan zen, Hizkuntzalaritza Erromanikoa egitera, ez baitzen oraindik Euskal Filologiarik gure artean. Garai hartan ezagutu nuen nik Andolin, unibertsitate giroan, geure herriaren egoera ilunaz kezkatutik geunden ikasleok, euskara eta euskal jarduerak bultzatzeko, antolatu genuen Euskal Kultur Mintegian, zeinen idazkaria Isabel Lertxundi izan zen, zoritxarrez, auto-istripuan gazterik hila. Gure aldamenean, Alfonso Irigoien, Karmele Rotaetxe eta Gregorio Monreal irakasle euskaltzaleak izan genituen, beti ere laguntzeko prest, geroago Patxi Altuna eta Gotzon Garate ere izan ziren bezala. Ordukoxea da, beraz, Andolin eta biok elkarrekin lotzen gaituen adiskidetasun luze eta sakona, inoiz ere hautsi gabea.

Ez ziren, ordea, unibertsitatekoak Andolin Eguzkitzak euskal munduarekin izan zituen harreman bakarrak. Hizkuntzaz eta literaturaz kezkatutik, ingurumen horretako jendea ere ezagutu zuen. Bilbon *Anaitasuna* aldizkariaren inguruan ibili zen, Imanol Berriatua zenarekin tratua handia izanez.

Lehenengo eta behin, bizkaiera ikasi zuen Eguzkitzak, eta geroxeago, bertoko euskara behin ere alde batera utzi gabe, literatur eredu batuaren alde azaldu zen. Harrezkero euskara batuan beste euskalki guztietako aberastasunak txertatzen saiatu da, Bizkaikoak batez ere.

Andolin Eguzkitzak euskara ikasi zuenean, Andima Ibiñagabeitia, Federico Krutwig eta Gabriel Aresti bizkaitarrekin, Txillardegi gipuzkoarrekin, Henrike Knörr arabarrarekin, Jon Mirande zuberotarrarekin eta beste askorekin etengabe luzatzen ari zen jada euskaldun berrien katea. Horretara, horien guztien ahalegin pertsonalaren poderioz hautsen zen, ordura arteko abertzale txepel askoren leloa, euskara nahitaez txikitzen ikasi behar zelako ipuina, beren alferkeria estaltzeko zerabiltena. Horien etsenpluak inarrosirik, belaunaldi gazteagoak haiek urratutako bideari jarraitzea erabaki zuen, eta gero eta segizio handiagoa izan du.

Gabriel Arestirekin harreman estu eta fruitukorrak izan zituen Andolinek solasaldi, eztabaida eta bidaia askotan zehar. Bera nolabait lotsaz gorritzeko beldurrez bada ere, ezin dezaket hemen aipatzeke utz, 1970. urtean, urriaren bukaeran Zuberoara hirurok elkarrekin egin genuen ibilaldian gertatua. Euskaltzaindiak bilera zuen han, bide batez Jean Dominique Salaberri kantutzaile zuberotarrari bere *Chants populaires du Pays Basque* liburuaren lehen mendeurrenean omenaldia egiteko, eta, hortaz, ekitaldi irekia zen. Egun hartan, gainera, Luis Villasantek Euskaltzaindiaren burutza hartzen zuen.

Edonola ere, huraxe izan zen Andolinek Maulera egiten zuen lehenbizi-ko bisita. Bide osoan zehar Gabriel Arestirekin era guztietako euskal gaiak ukitu eta eztabaidatzeaz gainera, Zuberoara heltzean, Andolinek bileran zeuden euskaltzainekin zein iparraldeko jendeekin euskaraz parra-parra inolako oztoporik gabe jardun zuen. Txikitandik euskaraz zekiten euskaltzain zahar batzuk orde, haiekin, zuberotarrekin bereziki, elkar ezin adituz zebiltzan eta guztiek harriduraz miresten zuten umegorri haren hizkuntz trebetasuna eta maila ona. Eta hori guztiori inolako harrokeria eta hantusterik gabe egiten zuen gure Andolinek, hots, berak hainbeste miresten duen xalotasunaz, hori gauzarik ohikoena eta normalena balitz bezala.

Aresti bera ere harri eta zur utzi zuen bidaia honetan Bizkaiko mutur honetako gazte hark eta haren omenez artikuluko gogoangarria idatzi zuen *Anaitasuna* aldizkariaren hurrengo zenbakian: *Munstro bat*, *munstro bi*, Euskal Herri-  
an sortzen ari zen belaunaldi berria goresteke. Hura nolabaiteko profezia izateko zen, harrezkero, Andolinen gisako gazte asko sortu baitziren. Eta ororen oinarrian, berriro diot, irakaskuntza, euskarazko irakaskuntza batik-bat, funtsezkoa izan da, Joanes Etxeberri Sarakoak duela hirurehun urte ederki iragarten zuen bezala (1).

Gure hizkuntza baserri giro apaletik atera, horixe zen Eguzkitzak aurrean zuen beste erronka, hain zuzen, eta ez zen txikiagoa euskara bera ikastea eta batzea baino, hots, gure mintzaira bizimodu modernorako egokitu eta kaletartzea. Ideia hori baina, ez zen hain berria. Lizardik berak ederki adierazia zuen asmo hori bere «oro-mintzo» bertso sonatuan, euskara noranahikoa nahi zuela aldarrikatzean. Halere, handik laster helduko zen gerrak guztiz zapuztuko zituen euskaltzaleen asmo onak. Eta frankismoaren azken garaira arte itxaron behar, bide horretan aurrerapausoak egin ahal izateko.

Bere herriarekin ongi sintonizaturik dagoenak sentiberatasun berezia ohi dauka bere ingurumeneko premiez konturatzeko ere. Horregatik, Andolinek

---

(1) Honela deitoratzen zuen lapurtar idazleak Euskal Herriak pairatzen zuen eskola gabe-ko egoera: «*Eta oraiokoe ere [gazteek] balute halako esku-emaille bat, eta bere herrian balituzte eskolak, bertze jendakiek tuzten bezala, ez tute dudarik, eman letzaketela bere izpirituoko puntaren frogak. Ordea hunelako laguntza faltaz hanbat adimendu eder, eta gai onak dohakabeki gelditzen dira mendi eta arrokaean ehortziak, eskoletan enpleguatuak izateko laguntzarik izan gabe, eta eginbide hautara igaiteko biderik ez izanez*». Gerotxoago era honetako gonbitak egiten zizkion euskal gazteriarri «...baldin eskoletako harmen bidez nahi baduzue zuen bethiereko omena hedarazi, jakin zazue, zuen eginbidea dela. estudioan behar bezala enplegatzea, egiazko garaitiaren ardiesteke; errekonpentsa berezi bat nahi baduzue ardietsi, letren haziak erain zatzue, zeren estudioko arbolatik bilduko baituzue bethiereko omenaren fruitua. Baldin gutizios bazarete loriaz aberasteko, eskoletako urre-meatzetan enplega, eta trabailla zaitetzte. Baldin desiros bazarete ohorearen zelai eder, eta zabaletan pasaletan ibiltzera, har zazue estudioaren karrosa. Baldin nihor kausitzen bada zuen artean estimuaren egartsuaz sekeriatua dagonenik, laster egin dezala eskolako iturrira, handik atherako tu egiazko estimuaren usin hondar gabeak, xirripa, eta hibai usintsuak. Nahi duzue laudorioen portura hedatu? Sar zaitetzte autoreen untzian, edo fragatan...» Joanes Etxeberri Sarakoa, *Lan hautatuak*, Lur editoriala, Donostia, 1972, 174. eta 190-191.

euskara bere eguneroko bizitza pertsonalean ez eze, hiriko eta unibertsitateko giroan ere txertatzeko konpromisoa oso-osoan onartu zuen. Unibertsitateko ikasketak 1975ean, Franco hil baino hilabete lehenago amaitu ondoren, ikas-ten segitzea pentsatu zuen. Ikasketetan lorturiko kalifikazioek aukera ona eman zioten Eguzkitzari kanpoan estudiatzeko bekak lortzeko: Salamankan (1975-76) Koldo Mitxelenarekin, Alemanian Koloniako Hizkuntzalaritza Institutuan (1976-78). Estatu Batuetan Iowa-ko Unibertsitatean (1980) eta Californiako Unibertsitatean Los Angelesen (1986), bertan bere doktoregoa eginez.

Ikerketa-ikasketak egiteko laguntzak eta sariak ere oso ugariak izan ditu. Hori dela eta, Mitxelena zenak umorez esaten zuen Andolin Guinnessen ego-teko modukoa zela, berak behintzat ez baitzuen ezagutzen beste euskaldunik kanpoan ikasteko hainbeste beka lortu zuenik, eta seguraski arrazoa zuen.

Baina ikasle ez eze, irakasle ere luzaz ibili zaigu Andolin. Euskara, gaztelania, ingelesa, linguistika orokorra, dialektologia erromanikoa, semantika eta tipologia linguistikoa irakatsi ditu Deustuan, Estatu Batuetan eta Euskal Herriko Unibertsitatean, aldi berean mintegi eta ikastaro ugari emanaz.

Mundu zabaletik egindako ikas-ibilaldietan hitzaldi ugari eskaini ditu hizkuntzalaritzaren eta literaturaren gainean euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta alemanez. Era berean anitz artikulua idatzi eta argitaratu dizkigu aldizkari espezializatuetan. Liburuak ere ez ditu falta. Batzuk literatur sorkuntzakoak: *Lehen orenean* (1978) eta *Herioaren itzalpean* (1998) eleberriak, *Orhiko mendirantz urratsez urrats* (1986), *Urkidian zehar* (1987), *Mila urte igaro eta, ura bere bidean* (1993) poema liburuak eta bere poesiaren antologia euskaraz eta katalanez (2001), eta beste batzuk itzulpenak, mundu zabaleko literatura guz-dera euskaraz eskaintzeko asmoz, adibidez Konstandinos Kavafis idazle grekoaren poema-antologia bikaina (1995).

Horiez gainera, Juan Tartasen eta Jon Miranderen idazlanen edizioak ere prestatu eta berrargitaratu ditu. Kazetari moduan hainbat artikulua eta liburu-kritika eskaini dizkigu *Anaitasunan*, *Argian*, *Euskaldunon Egunkarian*, *Jakinen*, *Hegats*, *Maiatz*, *Zehatz* eta beste hainbat agerkaritan. Horrez gainera, Euskal Idazleen Elkartearen lehendakaria eta Eusko Jaurlaritzaren Euskara Aholku-batzordearen kidea izan da aspaldiko bost urteotan.

Bestalde, 1986. urtetik Euskaltzaindiaren gramatika-batzordean lanean jardun du. Hortaz, bere merezimenduengatik, gure Akademiak, 1991.an euskaltzain urgazle izendatu zuen. Geroztik exonomastika eta biblioteca batzordeen kide ere izana da.

Hizkuntzetan ere ez dugu edonor Andolin Eguzkitzan: ongi daki mintzatzen gaztelaniaz, euskaraz, alemanez, frantsesez, ingelesez eta katalanez, eta horiez gainera, trebea dugu italiera, portugesa eta latina ere irakurtzen.

Baina tira, aski da, noizbait gelditu beharra dago eta. Ez, ez dut aurrera segitu nahi, behin artikulua, argitalpen, liburu, kargu eta gainerako merezimenduen itsas hondar gabe honetan sartuz gero, ez baitzait erraza gertatuko, zerbait ahortzi gabe hortik hutsik egin gabe salborik irtetea. Uste dut, bestalde, gure Andolinen apaltasuna nahiko gorritu eta ahalketurik dagoela honezkerok. Entzule gehienok, gainera, gure euskaltzain berria nik bezain ondo eza gutzen duzue eta, beraz, alferrik bezain aspergarria izango zaizue aurretik dakizkizuenak niri errepikatzen entzun beharra. Esan dezadan, beraz, honekin bukatzeko, eta abar eta abar.

Ikusi dugunez, luzaro ibili zaigu munduan zehar ikasten Andolin Eguzkitza, bere burua jakituriaz eta esperientziaz hornitzen. Hala eta guztiz ere, ez du horregatik galdu bere herriaganako, bere jendeaganako atxikimendua. Euskaltzaletasuna eta abertzaleatasuna inoiz kanpora irten ez direnen txokokeria dela uste dutenek on lukete Andolinen eta bere moduko beste askoren kasu ugariak hobeki kontsideratzea. Atzerrian ikusi eta ikasiek beren balio propioak ikuspegi zabalagoz estimatzen irakatsi diete guztiei, eta behin formazio ona lortu ondoren, bertora itzuli dituzte begiak, beren ekarpen intelektualak beren herriari eskaintzeko. Izan ere, antzeko zerbait sentitu eta adierazi zigun Iparragirrek berak ere bere kanta ezagunean: *Herrialde guztietan toki onak badi-ra, baina bihotzak dio: zoaz Euskal Herrira!*

Andolinengan, bestalde, argi ikus genezake euskarak eta euskal kulturak normalkuntza bidean azken urteotan lortu duten maila jasoaren islada. Horretarako, adibide gisa, utziko didazue beste pasadizo bat kontatzen, hau orain-tsukoagoa, iazko abenduaren 13an Eibarren gertatua. Euskal Idazleen Elkarteak gonbidaturik, Stephen Jay Gould estatubatuar biologo ospetsuak mintzaldi bat egin behar zuen bertako Armagintza Eskolan. Gaia: neodarwinismoari buruzko gogoetak. Hizlariaren maila eta ospea ezaguturik, jende asko bildua zen han bera entzuteko. Mintzaldia ingelesez izango zenez gero, aldi bereko itzultze zerbitzua aurikusia zuten antolatzaileek, baina azken orduko gaizki uler-tu bategatik –giza faktorea hemen ere!– itzultzailea ez zen agertu, eta arazoa konpontzeko, Andolinek berak, aurkezlea zen aldetik, itzulpena ingelesetik euskarara egiteko eskaini zuen bere burua.

Berbaldi osoan zehar, behin ere hutsik egin eta inolako zalantzarik izan gabe, gaia beretzat aski arrotz eta ezohikoa zen arren, bikainki azaldu zigun, Gould jaunaren solasa, terminologia zientifikoa erabateko zehaztasunez errespetatuz. Eta hizlaria bera ere, harriturik, horretaz ongi jabetu zen, ekitaldia amaitzean, berari zuzenduriko txalo zartaren ondoan, mirespenez eta esker onez, beste txalo batzuk eskatu baitzituen Andolinentzat, bere itzultzaile-zeregina hain ederki bete zuelako. Ekintza horrek, bat-batean eta ezustean burutuak, ondo ederto erakutsi zigun, batetik, euskararen normalkuntza eta gure hizkuntzaren zientzi homologagarritasuna, eta bestetik euskara ikasi eta landutako pertsona baten maila, noraino helduak ditugun une honetan. Hori ezinezkoa izango zen orain dela berrogei urte, eta oraingo lorpen bikain horien

aurrean, pozik egon gaitezke, eta itxaropentsu, euskarak geroan ere ukan dezakeen etorkizunaz.

Horren guztiorren ondorioz, noski, Euskaltzaindiak bere kide egitea erabaki du, Luis Villasante handiak utziriko aulkia betetzeko. Ez da bera Euskaltzaindian egon den Eguzkitza bakarra, gure Akademia sortu zenean ere beste bat izan baitzen, alegia, Joan Bautista Eguzkitza Meabe, Lemoako semea. Edonola ere, honetara burutzen da, oraingoz behintzat, Gabriel Arestik duela hogeita hamabi urte, Zuberoarako bidaia aherentzein hartan Andolinengan jadanik aurrikusi zuena: bidean abiatua zen eta erdal eremutik zetorkeen belauldi berriaren goi helburua. Honetan ere, Arestiri aitortu beharko diogu azti bikain eta igarle goiztiarra izateko meritua, Andolin Eguzkitzak euskal alorrean izango zuen etorkizuna auresatean, berak, sinbolikoki, Enkarterriko eta, oro har, Euskal Herri guztiko, belauldi gazteago eta ugariago osoa irudikatzen digulako, euskaldun berriena batez ere.

Txomin Agirrek bere Garoaren bukaeran idatziriko hitz gogoangarri haiek ekar genitzake hona: *«ez du bat ere axola hegi eta hegal guztiak igitiaz moztu arren. Sustraita geldituez gero, garoa egon dan tokian herriz ere garoa dator»*. Gure ondarrutarrak duela ehun urte zekusan gizartea asko aldatu da. Toki askotan, egia da, oraindik zutik dago, lehen bezala, antzinako euskal eredu hura, geure egunotara moldatua. Beste eskualde batzuetan, ordea, bertoko enberrari kanpoko txertoak egin dizkiote Gaztelatik, Kantabriatik, Galiziatik, Andaluzia eta Extremaduratik eta azken orduan Afrika, Hego Amerika, Asia zein Europaren ekialdetik helduriko jendeek, nor bere kultur ezaugarri bereziekin gurea aberastu eta osatuz. Egia esan, bere historian zehar Euskal Herriak, iraganbidea izanik, jende askoren pausaleku eta harreratokia izan bada ere, azken bi mende hauetan inoizko jende uholde handiena jaso du, eta horiek guztiok bereganatu eta integratzeko erronka handia daukagu.

Azpian baina, gure herriak lurpean sakon-sakonean sarturik, lehengo euskal erro jator zaharrak bizirik dauzka oraindik, beti iraunkor, gure iragan eta historiarekin lotzen gaituen lurrari ongi atxikiak, eta oraingo belauldi berrioi ere beren zukua, bere barruko ura eta izerdi bizikorra ematen segitzen diete, guztiok, bertoko zein kanpokoak, bere azal gainean euskaldun sentiaraziz.

Baina elkar-osatze hori konbentzimenduz, elkar adituz, auzotasun eta anaitasun giro baketsuan egin beharra dago, eta inola ere ez presio, gogorkeria, mehatxu eta indarkeriapean, aniztasuna eta giza eskubideak errespetatuz, eta orenen gainean, giza bizitza bera bermatuz. Gure herriari bezala, indarkeriazko ekintza itsuek ez diete inolako mesederik egiten euskarari ez eta gure hizkuntzaren Akademiari ere, eta pertsonen kontrako eraso deitoragarriek ere ez, aurretik beste askok bezala, aste honetan Eduardo Madina gazteak bidegabeki jasan behar izan duenaren antzekoek, eta bai kalte galanta, gure Herriko bizikidetasun giroa nahasi eta batzuei euskara eta gure kultura jendaurrean era horretako basakeriekin maliziaz lotu eta uztartzeko aitzakia

bikaina ematen dietelako. Bidea, berriro diot, bake-bidea da, besteenganako errespetua, elkar aberastea; hizkuntza, azken buruan, Villasantek berak nekatu gabe errepikatu ohi zuenez, gizarte osoaren ondarea izatea nahi badugu behintzat.

Hortixek helduko zaigu, hain zuzen, gaurko euskalduntasun berria, kale giroan mamitua, giza harreman zintzoen ondorio gisa, baserria gogoan baina jadanik testuinguru horretatik halabeharrez urrundurik, iratze-usaina baino hobeki ordenagailu-distira ezagutzen duena, beti etorkizunari adi.

Enkarterriko guraso eta aitita-amama askok amestu zutena egia bihurtzen ari da. Beren asaba zaharrek zerabilten euskara hura beren iloben ahoan lortzen dakusate orain, eta frankismo garaiko eskola eskusibista, deserrotzaile eta antieuskaldun hark, etorkinei euskal gizartean integratzeko aukera ukatzen ziena, hau da, euskara eta euskal kultura ikasiz, bertokotzea, aspaldion beren seme-alabengan berreskuratzen eta betetzen ari da. A zer nolako harrotasun jatorra erakusten dute etorkin askok beren ondorengoek euskaraz ongi dakitela esatean. Eta harrotasun hori ez da, soilki, haiena, gainerako euskal herritar guztiona baizik.

Hortxe dira, guztion poztasunerako, kanpoko deiturak dituzten idazle, irakasle, irrati eta telebista-aurkezle, funtzionario, kirolari eta pertsona publiko gero eta ugariago horiek, eta alderdi politiko guztietako kideak ere bai, euskaraz inolako problemarik gabe berba egiten dutenak, euskara etxean ikasitako guztiek gaztelaniaz ere ederki dakiten bezala. Horixe da, benetako gizarte-integrazioa lortzeko eta aniztasuna errespetatu eta praktikatzeko bidea, eta ez, itxuraz eta ahoz beren burua pluralista agertu arren, gurean *de facto* erdaldun elebakar izaten ahalegintzen direnena.

Guзtiok dakigu baina, Bibliak fariseu eta lege-maisuez esana: «*Saia zaitetze, beraz, haiek esaten dizueten guztia betetzen; baina ez egin egiten dutena; esan, esaten baitute, baina egiten ez*». (Mat. XXIII-39). Eta izan ere, predikurik onena norbere eguneroko bizi-eredua izaten da, hori barruan omen daukagun ideologia eta idealismo pertsonalarekin bat datorrela erakustea. Eta Andolin Eguzkitzak lekukotasun hori eskaini digu: belaunaldi kontsekuente baten eredua izan dugu bera, erdaldun jaio arren, euskaraz ikastea eta lantzea posible dela eta erdal giroan ere euskaraz bizitzeko ahalegina merezi duela agertu duelako, orain arte posibilitate hori, gure hizkuntzaren kalterako, aldearantziz posible izan den bezala, hots, euskal giroan erabat erdaraz bizitzea. Beraz, frogaturik gelditu da aurreko joera eta inertzia historiko kaltegarriak, benetan nahi badugu, norabidez alda daitezkeela, gure jatorrizko balioak berreskuratzeke.

Amaitzera noa. Gaur Andolin Eguzkitza, Enkarterriko lehen euskaltzaina, ohoratzeraz etorri gara. Bere sarrerarekin baina, Euskaltzaindia bera ere ohortzen da. Asko da orain arte egin duena baina segur naiz gehiago izango dela oraindik beragandik jasoko duguna. Erasmo Rotterdamgoak eromenaren lau-

dorioa idatzi bazuen, Andolinek xalotasuna goretsi digu maisuki, Arantzazuko fraidea eredu harturik. Biak, zentzu oneko eromen berritzailea eta bizikidetasun hoberako xalotasuna, beharrezkoak direlakoan nago.

Eskerrik asko eta ongi etorri gure artera, adiskide Andolin.

Para terminar, deseo dar la bienvenida a nuestra Academia a Andolin Eguzkitza, que estoy convencido que no será el último miembro de Euskaltzaindia nacido en esta zona de Bizkaia. Su trayectoria en el estudio, cultivo y defensa de la lengua vasca le han hecho merecedor de esta distinción. He querido subrayar la honestidad y ejemplaridad de su postura como intelectual vasco comprometido con su país, trabajando siempre por su desarrollo cultural, pluralista, armonioso y pacífico. Esto es algo a tener en cuenta y a valorar muy especialmente en la actual situación, en la que algunos todavía se empeñan en utilizar la fuerza, la imposición y la violencia contra sus adversarios políticos, mostrando nulo respeto por los derechos humanos más elementales, cuyas lamentables consecuencias, entre otros muchos, ha sufrido esta misma semana y en esta margen izquierda el joven Eduardo Madina, al que deseo una pronta recuperación.

Nuestro país, nuestro pueblo, están siendo víctimas de una sinrazón que nos golpea una y otra vez, y ello afecta también al euskara y su Academia, ya que, además de causar un absurdo sufrimiento a muchas personas, contribuye a enrarecer el clima de paz y buena convivencia necesarios para toda comunicación cultural y comprensión mutua, al tiempo que es utilizado por quienes tratan de tergiversar las cosas, asociando injusta y malintencionadamente el uso, la promoción y la defensa del euskara con la violencia y unas determinadas opciones políticas. No olvidemos que la lengua y la cultura deben ser un patrimonio de toda la sociedad, al margen de cualquier interés partidista, tal como nos lo ha recordado acertadamente Andolin Eguzkitza, al citar aquí las palabras tantas veces repetidas por nuestro llorado académico y ex-presidente Luis Villasante.

Besterik ez. Berriz ere, adiskide Andolin, eskerrik asko, eta ongi etorri gure artera.

Anitz esker guztioi.



## ANDOLIN EGUZKITZA-REN SARRERA HITZALDIAN, EUSKALTZAINBURUAREN ONGI ETORRIA

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Santurtziko alkate jauna,  
Santurtziko zinegotzi jaun-andereak,  
Kultura Sailburu anderea,  
hemen dauden beste agintariak,  
euskaltzainkideak.  
Jaun-Andereak, eguerdion.

Nola egon eskerrak eskaini gabe gaurko ekitaldi honetan. Bilbotik etorri gara untziz, *Euskal Herria* deitu untzian, bi alboetan laguntzaile genituela bi traineru; leihoratu gara Santurtzi-n arraunlarien eta dantzarien artean iraganez, aurrekuarekin ongi etorri beroa ukan dugula. Euskaltzaindariaren izenean eskertzen ditut besta eder hau apailatu duten guziak.

Dakidanez lehen aldikotz etortzen da Euskaltzaindia Santurtzira. Lehen aldia eta ezin ahantzizkoa, bai harreraren aldetik, bai ere entzun ditugun mintzaldien aldetik. Zorionak beraz euskaltzain berriari, hari esker bizi baitugu gaurko egun zoragarria.

\* \* \*

Señor alcalde, señoras y señores concejales voy a tratar de hablar en español para agradecer esta acogida especial y maravillosa que se ha hecho a Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca. No es para lucirme, tampoco para «lucir la pantorrilla» como se dice en el canto conocido. Gracias a Vds. esta acogida ha sido una de las que no se pueden olvidar: llegada en barco acompañado por las traineras, danzas, aurreku, etc. como lo decía en euskera. En nombre de Euskaltzaindia les doy las mil gracias.

\* \* \*

Orain pasatuko gara, bi mintzaldiak entzun-eta ekitaldi ofizialera. Hala ere nahi nituzke bi hitz erran gure euskaltzain berriaren agurtzeko. Iraganari begira, banoa 30 urte gibelera Baionako euskal kultur asteak sortu genituelarik Baionako euskal erakustokian. Sortzaileetarik biga gaude hemen, Pierre

Charritton jaun euskaltzaina eta nihaur, euskal erakustokiko zuzendaria nintzela orduan. Bi urtez segidan egin ziren eta gero sortu genuen Udako Euskal Unibertsitatea lau urtez egon zela Iparraldean, bi urtez. Donibane Lohizuneko Maurice Ravel Lizeoan, bi urtez Uztaritzeko Landagoien deritzan etxean Hegoaldera joan aitzin.

1970. urtean gaude, lehenbiziko kultur astean, mintzaldi asko izan zirela, entzuleak ere, gehienak Hegoaldekoak. Mintzaldiak bukatzen zirenean hasten zen galderen garaia. Eta hona non, lehen mintzaldiaren ondotik xutitu zen mutiko txar mehar bat bere galderaren egiteko. Erantzuten zitzaion eta beste nehorik ez baitzuen deus galdegiten berriz xutitu zen bigarren galdera baten egiteko. Egun guziez eta mintzaldi guzien ondotik, mutiko bera –hamazazpi urte zituen orduan– arizan zen galdezka. Ez bainekien nor zen, galdegin nion Hegoaldeko adiskide bati nola deitzen zen mutikoa. Hola jakin nuen Andolin Eguzkitza deitzen zela eta haren ezagutza egin nuen orduan, duela beraz 32 urte.

Euskal kulturaz hain gose eta egarri zen mutiko mehar harek bide eder bat egin du geroztik. Estudioak eginik Euskal Herrian, Alemanian, Estatu Batuetan, doktore da eta Euskal Herriko Unibertsitateko erakasle. Denek entzun duzuen bezala mintzaldi eder eta mamitsua eman digu bere Euskaltzaindiaren sarrerako, Xabier Kintana euskaltzainak erantzuten ziola modu berean.

Orain euskaltzain berriari doazkon domina eta diplomaren emaitan, galdegiten diot areto hauetan den jende guziari xuti dadien ohi den bezala.